

MEMORIA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

MEMORIA



2

0

1

9



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa

Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71, 3. solairua

01008 VITORIA-GASTEIZ

avpd@avpd.eus

www.avpd.eus

MEMORIA

ISSN: 2253-9506

Aldizkakotasuna: urtero

LG: VI 312-2006

Lan hau Creative Commons da



Aitorpena (by)

Aske zara:

- lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeko
- lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesa duzunik edo haiek obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>



AURKIBIDEA

ORRIALDEA

1.	AURKEZPENA	5
2.	KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA.....	7
3.	AHOLKULARITZA-EGINKIZUNA.....	9
4.	KONTROL-EGINKIZUNA.....	19
5.	DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA.....	49
6.	BARNE KUDEAKETA.....	53
	AHOLKULARITZA- ETA IKUSKARITZA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK.....	60
	AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK	62





1. AURKEZPENA

Jardueren urteko memoria egin eta onartzeko eta Eusko Jaurlaritzari helarazteko arrazoia da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko Legeak Bulegoari eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 59. artikulua gainontzeko kontrol-agintaritzei ere ezartzen dien berariazko agindua betetzea. Era berean, eta Erregelamendu Orokorrek xedatzen duenez, modu bat da Bulegoak 2019an egindako jardueren berri emateko modu sistematizatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrei eta administrazio eta erakunde publikoei; hain zuzen ere, ahalik eta modurik eraginkorrenean ziurtatzeko pertsona guztiok baliatu dezakegula, bakoitzaren eskumen esparruan, norberaren pribatutasuna babesteko oinarritzko eskubidea.

2019ko Memorian jaso ditugu Bulegoak, helburu horiek lortzeko, burutu dituen jarduerarik garrantzitsuenak. Lan hori guztia hainbat ataletan agertzen da bertan, gaika sailkatuta eta kronologikoki antolatuta, hobeto adierazteko Bulegoko unitate bakoitzak urtean egindako jardura guztien segida.

Bulegoaren lehentasunezko zereginei erreparatzen badiegu, hainbat zabalkunde eta prestakuntza jardueratan hartu du parte, Erregelamendu Orokorrek aitortutako eskubide berriak zertan diren azaltzeko herritarrei, eta kontzientzia publikoa hedatzeko pribatutasunaren balioari buruz eta pribatutasuna Euskal Administrazio Publikoen eguneroko jardueran zorrotz errespetatzeko beharrianari buruz.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) osorik betetzeak komenigarri bihurtzen du arlo honetan autonomia-erkidegoetako araudia egokitzea; horregatik, Bulegoak material batzuk prestatu ditu Datuak Babesteko Euskal Legea sortzeko. Material horiek erakunde eskudunen esku jarriko ditu legegintzako ekimen hori bultzatzeko eta abian jartzeko.

Azkenik, esan nahi dugu aurten ere 2019ko Memoriak jaso duen Bulegoaren lan guztia, bai aholkularitza-eginkizuna betetzeko egindakoa bai kontrol-agintaritza den aldetik egindakoa, asmo garrantzitsu batekin egin duela, hau da, benetako oreka lortzea datuak babesteko oinarritzko eskubidea eta hori bezain garrantzitsuak diren beste eskubide batzuk egikaritzean; kontuan izanda gurea teknologia-arloan gizarte aurreratua dela eta guztiz konektatuta dagoela, eta maiz jartzen duela atezuan eskubideen arteko oreka.



Espero dugu 2019ko Memorian irakurleei eman diegun informazioa egokia izatea bakoitzak ikusteko zenbateraino lortu den Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren helburuak gauzatzea, Bulegoa sortzeko Legeak ezartzen duenaren arabera, ikusteko noraino bete duen zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzea eta ea osorik egokitu zaien Europar Batasuneko xedapenek kontrol-agintaritzentzat ezartzen dituzten jarduera-esparruei.

2019ko urria

Margarita Uria Etxebarria

Zuzendaria



2. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEA

Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 14. artikulua xedatutakoaren arabera, Datuak babesteko Euskal Bulegoaren Kontseilu Aholku-emailea DBEBren zuzendariari aholkua ematen dion kide anitzeko organo bat da, eta 2/2004 legearen 16. artikulua xedatzen du nortzuk osatzen duten: Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, Euskadiko toki erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkari bi, bata informatika esparrukoa eta bestea oinarrizko eskubideen esparrukoa.

2.1. KONTSEILU AHOLKU-EMAILEKO KIDEAK

2019ko abenduaren 31n honako hauek osatzen zuten Kontseilu Aholku-emailea:

- **Aintzane Urquijo Sagredo Andrea.** Santurtziko alkatea Euskadiko toki erakundearen ordezkaria.
- **Montserrat Auzmendi del Solar Andrea.** Eusko Legebiltzarreko legelaria.
- **Nieves Martínez de Antoñana Blanco Andrea.** Araubide Juridikoaren zuzendaria. Lehendakaria Saila.
- **Mikel Ulazia Etxabe jauna.** GFaren datuak babesteko ordezkaria. Foru aldundien ordezkaria.
- **Eduardo Jacob Taquet jauna.** Ingeniaritza Telematikoko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- **Iñaki Esparza Leibar jauna.** Lehendakaria Zuzenbide Prozesaleko katedraduna. Euskal Herriko Unibertsitatea.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 6. artikuluan ezarritakoarekin bat, DBEBren idazkari **nagusi Manuel Valín López** jauna da Kontseilu Aholku-emailearen idazkaria.

DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOKO KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 7. artikuluko 8. zenbakian ezarritakoarekin bat, DBEBren zuzendari **Margarita Uria Etxebarria** andrea Kontseilu Aholku-emailearen saioetan egoten da, hitzarekin, baina borotik gabe.

Kontseilu Aholku-emailearen lehendakari kargua txandakakoa da eta urtero aldatzen da, KONTSEILU AHOLKU-EMAILEAREN ANTOLAKETAKO ETA FUNTZIONAMENDUKO ARAUEN 4.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2.2. KONTSEILUAK EGINDAKO BILERAK

Kontseilu Aholku-emaileak honako bilera hauek egin zituen 2019an:

- 2019ko ekainaren 13an ohiko bilera egin zen. Bertan, Esparza Leibar jauna lehendakari izendatu zuten eta honako gai hauek aztertu ziren: 2018ko Memoriaren berri ematea, «Kazetaritza, pribatutasuna eta eskubide digitalak» izenburuko udako ikastaroaren edukia eta ezaugarriak, eta



lehenengo seihilekoan egindako jarduera aipagarriak. Azken horien artean honako hauek azpimarratu ziren: Eusko Legebiltzarrean egindako Datuak Babesteko Sarien sari-banaketa ekitaldia; ByskaiTIK Fundazioarekin elkarlanean antolatutako jardunaldi irekia toki administrazioentzat; DBEBko hainbat kideren parte hartzea SEGURTASUNEKO ETA OSASUNEKO DATUEN BABESARI BURUZKO XVI. FOROAN, hizlari eta entzule moduan; AEPDn egindako bilera bat hainbat lantalde eratzeko, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutako lankidetzarako mekanismo moduan; eta IVAPekin elkarlanean emandako Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorriari buruzko lineako prestakuntza-ikastaroak.

- 2019ko abenduaren 4an ohiko bilera egin zen. Bertan DBEBren 2020ko ekitaldirako aurrekontuaren partidariak esanguratsuenak azaldu ziren, DBEBren zuzendariak Kontseiluari azaldu zion laguntza teknikoa kontratatu zela datuak babesteko euskal legearen aurreproiektua edo proposamena prestatzeko beharrezkoak diren materialak idazteko; jakinarazi zuenez, kontratua Broseta abokatu-bulegoari esleitu zitzaion.

Halaber, jakinarazi zen ez zela kandidaturarik egon Datuak Babesteko 2018ko Sarietarako, komunikazioaren modalitatean. Halaber, iragarri zen 2020ko udako ikastaroa agiritegi publikoen kudeaketaren eta datuen babesaren arteko harremanari buruzkoa izango zela. Bigarren seihilekoan egindako jarduera nabarmenen artean, berriz, honako hauek aipatu ziren: 3 letratu lanpostu berri betetzeko deialdia egin izana, SEIS (Osasunaren Informatikako Espainiako Elkarte) elkartearen 2020ko jardunaldiak antolatzeko laguntza eman izana eta DBEBko hainbat ordezkari Datuak Babesteko Kontrol Agintaritzek Sevillan egindako lehenengo koordinazio-bileran egon izana.



3. AHOLKULARITZA-EGINKIZUNA

2019. urtea igarotakoan, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren nahiz abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren haritik eremu publikoan sortu diren aztergairik garrantzitsuenak baloratu ahal ditugu.

Gure iritziz, Administrazio Publikoetan tratamenduaren oinarri juridikoak zehaztea izan da gai horien artean garrantzitsuenetako bat. Horren haritik, egiaztatu da tratamenduaren arduradun ugarik, artean, adostasuna tratamenduari legitimitatea ematen dion oinarritzat jotzen jarraitzen zutela; hala, indargabetutako 15/1999 legearen logika juridikoaren bidetik jarraitzen zuten. Horri dagokionez, Bulegoaren aholkularitza-eginkizunean nahiz zabalkunde-jardueran hainbat aldiz errepikatu da Administrazio Publikoari datu pertsonalen tratamendua egiteko legitimitatea ematen dion oinarri nagusia interes publikoa edo botere publikoen jarduna dela. Gainera, Administrazio Publikoari datu pertsonalen tratamendua egiteko legitimitatea ematen dioten oinarrietako bat hirugarrenen interes legítimoaren garrantzia dela nabarmendu behar izan da, 3/2018 Lege Organikoaren hamargarren xedapen gehigarriak hala azaltzen baitu.

Administrazio Publikoentzat kezkagarri izan den eta oraindik ere kezka-iturri den alderdietako bat da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2. artikuluan jasotzen duenaren norainokoa. Manu hori 3/2018 Lege Organikoak aldatu zuen (azken xedapenetako hamabigarrena); hain zuzen ere, Administrazioari interesdunak ekarri ez dituen agiriak kontsultatzeko edo eskatzeko legitimitatea ematen dioten alderdietatik bazter utzi zen isilbidezko adostasuna. Hala ere, Administrazio Publikoek xedapen horretara jotzen dute informazioa eskatzeko, ez soilik interesdunari, baizik eta harekin zerikusia duten hirugarren pertsonen ere (kasu hori oso ohikoa da laguntzak emateko prozeduretan). 28.2 artikuluko xedapen horrek oinarritzko zuzenbidean dakartzan ondorioak, alde batetik, eta 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian Administrazioari onartzen zaion egiaztatze-ahala, bestetik, kontu handiz aztertu behar dira, are gehiago datu-kategoria bereziak ukitzen badira.

Datu biometrikoen tratamendua orokorra izan da, eta alderdi hori ere 2019an nabarmentzekoa izan da, batez ere hatz-marken kasuan. Datu biometrikoak datu-kategoria berezietan sartzan direnez, arduradunak kontu handiz jokatu behar du halako tratamenduetan. Horren haritik, aipagarria da Konstituzio Auzitegiaren 76/2019 Epaia, maiatzaren 22koa. Epai horrek honako hau argitzen du: datu horien tratamendurako lege-gaikuntzan esku-hartzearen aurreikuspen eta baldintza guztiak adierazi behar dira, eta legeak hala ezartzea eta legitimitatea egotea berez ez dira nahikoak, horrez gain berme egokiak ere ezarri behar direlako.



3.1. TELEFONO BIDEZKO ARRETA, ZUZENeko ARRETA ETA ARRETA TELEMATIKOA

DBEBk herritarrentzat eta gainontzeko Administrazio Publikoentzat gertukoa eta eskuragarria den erakundea izan nahi du; eta, horretarako, hainbat komunikazio-kanal jarri ditu horien denen esku, informazioa edo irizpide juridikoa ala teknologikoa eskatu nahi badute, erabil ditzaten, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea uki dezakeen edozein gairen gainean galdetzeko.

2019an Agentziak ehunka aholkularitza-eskabide inguru jaso zituen telefono bidezko, zuzeneko arretako eta arreta telematiko bidezko kanalen bitartez. Batez ere herritarrak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak dira kanal anitzeko arreta-zerbitzu horren erabiltzaileak.


2019an ere, herritarrentzat arazorik kezkagarriena argi eta garbi beren datu pertsonalen tratamendu desegokia izan da, bereziki beren datuak komunikatzea eta zabaltzea, eta gero eta ugariagoak dira aholkularitza- eta laguntza-eskabideak Interneten norbere datuak eskuratzeko eta ezerezteko eskubideak behar bezala erabiltzeko (ahaztua izateko eskubidea).

Nabarmentzekoa da, halaber, euskal Administrazio Publikoetako datuak babesteko ordezkariak kontsulta ugari egin dituztela, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa aplikatzeari buruz. Kontsulta horietan agerian geratu denez, ordezkari horien lana funtsezkoa da, Administrazioek lan egokia egin dezaten eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudia bete dezaten, euren eginkizun eta ahalak egikaritzean datuen tratamendu egokia bermatuz.

3.2. IRIZPENAK

DBEBk irizpen bidez ebazten ditu datuen babesari buruz jasotzen dituen galdera konplexuak. Agentziak aholkularitza-eginkizuna burutzen du otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 n) artikulua xedatutakoa betetzeko, eta Administrazioei nahiz pertsona fisiko zein juridikoei eskaintzen die, honako baldintza hauek betetzen badira:

- Kontsultaren gaiak 2/2004 legearen aplikazio-eremuko erakundeek edo administrazio publikoek sortu edo kudeatutako fitxategietan jasotako datu pertsonalen tratamenduei buruzkoa izan behar du.
- Planteatutako gaiak zehatza izan behar du, eta horrek esan nahi du gutxienez zalantzaren iturburuaren deskribapena egin beharko dela, eta Agentziak irizpidea behar bezala eman ahal izateko behar duen informazioa aurkeztu beharko dela.





2019an udalek egin zituzten kontsulta gehienak, eta udalen atzetik foru-aldundiek, eta azkenik EAEko Administrazio Orokorrak. Horiez gain, beste entitate eta erakunde publiko eta herritar batzuek ere jo zuten Agentziara, Agentziaren irizpidea eskatzeko datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearekin lotutako hainbat gaitan.

Kontsulten artean aipagarrienak dira Administrazio Publikoek egindako tratamenduak legitimatzen dituzten oinarri buruzkoak. Oinarri ohikoena da tratamendua beharrezkoa izatea lege izaerako arau batek ezarritako eginkizun bat betetzeko interes publiko baten indarrez [Erregelamendu Orokorraren 6.1 e) artikulua] edo lege-betebehar baten indarrez [Erregelamendu Orokorraren 6.1 c) artikulua]. Adostasuna [6.1 a) artikulua] ezin izango da erabili oinarri juridiko moduan, tratamendu-arduraduna den Administrazioaren eta interesdunaren arteko egoeretan orekarik ez badago; eta Administrazioek ezin izango dituzte legitimatu tratamenduak interes legitimoaren izenean; kontuan hartu beharko du, ordea, hirugarrenek aipatzen badute interes legitimoa [6.1 f) artikulua].

Edozelan ere, administrazio publikoek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduek Erregelamendu Orokorraren printzipioak bete beharko dituzte, esate baterako, datuen minimizazioarena [5.1c) artikulua] eta gardentasunarena [5.1 a) artikulua].

3.2.1. Irizpenak

Irizpen esanguratsuenak eskuragarri daude Agentziaren web orrian (www.avpd.eus).

- **Datu pertsonalak ote dauden udaltzaingoak sare sozial batean zabaldutako irudi batzuetan (CN18-018)**

Udaltzaingoak bere Twitter kontuan jarritako irudiek —modu arriskutsuan dabilen ibilgailu batenak eta Udalaren segurtasun kamerak grabatutakoak— ez dute datu pertsonalak babesteari buruzko araudia urratzen, horko informazioak ez duelako identifikatzen edo identifikagarri egiten, zuzenean edo zeharka, pertsona fisiko zehatzik.

- **Ustezko eskola-jazarpen kasuak daudenean hasitako jarduteko protokoloen ondorioz sortzen den dokumentazioa eskuratzea (CN18-022)**

Eskola-jazarpeneko protokoloen ondorioz sortzen den dokumentazioa eskuratzeko, kontuan hartu beharko da, batetik, eskuratu nahi den dokumentazioaren aurretiazko izaera; eta, bestetik, adingabearen interes gorena; eta horiez gain, dokumentazioa eskuratu nahi dutenen interes legitimoak ponderatu beharko dira.



- **Kontsulta egiten duen pertsonak duen eskubidea, berak lan egiten duen administrazioak dituen bere datu pertsonalak atzitzeko (CN18-021 eta CN19-001)**

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 15. artikulua eta kontuan hartzekoen 63. zenbakiak arautzen duten atzipen eskubideari esker jakin dezake eta egiaztatu ere bai pertsona interesdunak ea bere datu pertsonalen tratamendua legezkoa den; baina, horretarako, tratamenduaren arduradunak honako hauek eman beharko dizkio, besteak beste, interesdunari: egin duen edo dituen tratamenduaren edo tratamenduen helburuari buruzko informazioa; eta tratamenduaren kontzeptuaren baitan (Erregelamendu Orokorraren 4. artikulua) sartzen da datuak kontsultatzea edo datuak irispidean jartzeko edo alderatzeko beste edozein forma.

Tratamenduaren arduradunak nahitaez eman behar dio interesdunari bere datu pertsonaletan organizazioaren barruan egin diren atzipen bidegabeen gaineko informazioa, ahalik eta zehatzen adieraziz egin den tratamendua. Horrela, datu pertsonalen titularrak aukera izango du, hala nahi badu, datu pertsonalak babesteko duen oinarritzko eskubidea defendatzeko egoki ikusten dituen legezko akzioak hasteko.

- **Udaleko osoko bilkurak grabatzea eta bertaratuen datuak biltzea (CN19-002)**

Osoko bilkurak Udalekoak ez diren baliabideekin grabatzea datu-tratamenduaren enkargu bat da, eta Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoan ezarritako betekizunak bete beharko ditu. Osoko bilkurara joaten direnen identitate-datuak biltzea, segurtasun-arazorik ez badago, ez dator bat Erregelamendu Orokorreko oinarri juridikoekin.

- **Hildako pertsonen senideek hildakoen historia klinikoa atzitzea (CN19-003)**

Honako hauek legitimatuta daude hildakoaren historia klinikoa atzitzeko, hildakoaren berariazko aurkakotasuna egiaztatu ezean: senarra edo emaztea edo izatezko bikotekidea, gurasoak, seme-alabak eta anaia-arrebak. Historia klinikoan dauden datuen artetik bakar-bakarrik ez zaizkie emango hirugarrenei kalte egiten dien informazioa eta profesional sanitarioen ohar subjektiboak.

Familia-harremana edo izatezko harremana egiaztatzen ez duten pertsonak hirugarren pertsonatzat hartuko dira, eta hildakoaren berariazko aurkakotasunak ukitutako senideei ematen zaien tratamendu bera jasoko dute, hau da, hildako senidearen historia klinikoa atzitu ahal izango dute baldin eta haien osasuna arriskuan baldin badago, eta ondasun juridiko hori babesteko behar diren hildakoaren datu klinikoak baino ez dituzte jasoko. Beste kontu bat izango da hildakoak 1/1982 Lege Organikoan aipatzen diren jarduerak burutzeko izendatutako pertsonak badira edo oinordekoak.



- **ETZEBn jasotzea Euskarazko C1 edo C2 mailak egiaztatzetik salbuetsita gera daitezkeen ikasleen datuak, unibertsitate-ikasketak euskaraz egin dituztelako (CN19-004)**

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren arabera, unibertsitate-ikasketak euskaraz egin dituztelako Euskarazko C1 edo C2 mailak egiaztatzetik salbuetsita gera daitezkeen ikasleen datu pertsonalak ETZEBn jaso ahal izateko, arau batek agindu beharko du.

- **Datuak ezereztea EHAAren edizio digitalean (CN19-005)**

Datuak ezerezteko eskubidea eta aldizkari ofizialen integritatea behar bezala uztartzeko modua da Interneteko bilatzaileek dituzten estekak ezabatzea. Horrela, informazioa eskuratzea zailagoa da, baina ez da jatorria ukitzen, eta informazioak jatorrian segitzen du, baina indexatuta. Bestalde, argitaratutako informazioaren gaineko erantzukizunari dagokionez, informazioaren bidaltzailea izango da erantzulea eta ez aldizkari ofiziala.

- **Zerbitzu sanitarioak emateko atxikimendu-hitzaurren batetik eratorritako datu pertsonalen tratamendua (CN19-008)**

Izenpetutako atxikimendu-hitzaurrearen indarrez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua da Euskal Osasun Zerbitzuaren historia klinikoetan sartzen diren datuen tratamenduaren arduraduna, eta Onkologikoa Fundazioa izango da tratamendu-eragilea, datuak tratatuko dituelako arduradunaren kontura, Osakidetzako erabiltzaileen historia klinikoetara sarbidea izango du eta historia kliniko horietan sartu beharko du Fundazioko profesionalek sortzen duten informazioa.

Atxikimendu-hitzaurrea denez Osakidetzaren eta Onkologikoa Fundazioaren arteko tratamendu-enkargua eratzen duen tresna, bertan jaso beharko dira datu-tratamenduek eduki ohi dituzten betekizun guztiak (xedeak, iraupena, izaera, tratamenduaren helburua, datu pertsonalen mota, interesdunen kategoriak eta arduradunaren betebeharrak eta eskubideak), Erregelamendu Orokorren 28.3 artikulua agintzen dituenak, hain zuzen, besteak beste, arduradunaren jarraibideak dokumentatuta, konfidentzialtasun-konpromisoa eta segurtasun-neurriak.

Onkologikoa Fundazioak araubide pribatuan, beste zeinahi entitate, erakunde edo pertsona fisikoren kontura ematen duen asistentzia sanitariotik lortutako datu pertsonalak Onkologikoa Fundazioaren ardura izango dira eta ez beste inorena, eta ezin izango dira zuzenean jaso Osakidetzaren historia klinikoetan.

Onkologikoa Fundazioa denez tratamendu horien arduraduna, nahitaez hartu beharko ditu babes bereziko kategoria duten datu horien konfidentzialtasuna eta osotasuna bermatzeko neurri guztiak bai arlo teknikoan bai antolakuntzan.





- **Datu pertsonalen tratamendua jenderik gabeko etxebizitzetara edo etxebizitza hutsei buruzko azterlan batean (CN19-006)**

Udal batek jenderik gabeko etxebizitzetara buruzko azterlan bat egin nahi du, jakiteko zein den benetako egoera, eta azterlanaren emaitza erabili nahi du etxebizitza horiek mobilizatzeko neurri positiboak hartu ahal izateko eta etxebizitzak udalerriko biztanleen eskura jarri ahal izateko. Horretarako, udalak udal errolda erabiltzeko eta Ur Partzuergoari kontsumoen zerrendak eskatzeko asmoa du. Eta horrez gain, elkarrizketa pertsonalak egin nahi dizkie azterlanaren arabera jenderik gabe edo hutsik dauden etxebizitzetara titularrei.

Datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa Erregelamendu Orokorren 6.1.e) artikuluan dago jasota eta, artikulua horrek dioenez, tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat baliatzeko izan beharko da, eta lege mailako arau batek agindu beharko du (3/2018 Legearen 8.2 artikulua). TAOLek, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak etxebizitza gaietarako eskumenak esleitzen dizkiete udalerriari.

Udalak udal erroldako datuak tratatu ahal izango ditu, baina baldin eta datu horiek beharrezkoak badira administrazio horiek etxebizitza gaietarako eskumenez balia daitezkeen, eta baldin eta egoitzaren edo helbidearen datua oso garrantzitsua bada (TAOLen 16.3 artikulua). Kontsumo-datuei dagokienez, esan behar da Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 64. artikulua legimitatzen duela udala ur-kontsumoari buruzko datuak tratatzeko, etxebizitza bat modu desegokian erabiltzen dela egiaztatzeko helburuarekin. Ur-kontsumoaren gaineko datuak beste asmo batekin erabili ahal izateko, beste lege-oinarri bat beharko da, eta ez hau.

Etxebizitzetara titularren identitateari buruzko datuak zuzenean eskuratzeko, administrazio-erregistroetara jo behar izaten da, adibidez, higiezinaren katastrora; eta zeharka ere eskura daitezke honela: Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren bitartez, higiezinaren titularrak direlako zergaren subjektu pasiboak. Beraz, Udalak higiezinaren katastratik datozen etxebizitzetara titularren identitatearen datuetara sarbidea izan ahal du, baina Higiezinaren Katastroko Foru Arauan ezarritako mugekin; horrek esan nahi du informazio hori tratatzea ezinbestekoa izan beharko dela udalak etxebizitza gaitan dituen eskumenak baliatzeko. Zergei buruzko Foru Arauak xedatzen duenez, zerga-ordainketan eragina duten datuak, adibidez, ondasun higiezinaren gaineko zergatik eratorritakoak, isilpekoak dira eta hark kudeatzen dituen zergak edo baliabideak aplikatzeko eta bidezko zehapenak ezartzeko soilik erabili ahal izango dira, eta ezin zaizkie laga gainontzekoei, ezta jakinarazi ere. Foru Arauak hainbat salbuespen ditu, eta horietako batek datuak lagatzeko baimena ematen die Administrazioei, euren eginkizunetan laguntzeko, interesdunak (zergapekoak) alde aurretik adostasuna adierazi badu.

Kontuan hartuta Udalak zerbitzuen kontratu bidez egin nahi duela jenderik gabeko etxebizitzetara egoeraren gaineko azterlana, gogora ekarri behar dugu kontratuak jaso beharko dituela Erregelamendu Orokorren 28.3. artikulua tratamenduaren arduradunarentzat agintzen dituen baldintza guztiak eta 3/2018



Lege Organikoan ezarritako betebeharrak guztiak betez, batez ere 33. artikulua eta lehenengo xedapen gehigarriak xedatutakoa.

- **Historia klinikoak gordetzea osasun zentroak behin betiko ixten direnean (CN19-009)**

Susmatzen bada jardura bertan behera utzi duen osasun zentro batek ez dituela bere gain hartuko bertako pazienteen historia klinikoak, osasun-arloko administrazioa legitimatuta dago dokumentazio klinikoak gordetzeko lege ezarritako epeetan, hori egitea beharrezko bada herritarren osasunerako eskubidea babesteko, eta bat badator osasun administrazioari dagozkion betebeharrekin eta osasunaren arloari buruzko legeriak xedatzen duenarekin.

- **Zenbait laguntza eta dirulaguntza kudeatzeko, beste administrazio batzuei zerga-datuak komunikatzea (CN19 -010)**

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren 28.2 artikulua arautzen duenez, interesdunek eskubidea dute ez aurkezteko administrazio jarduleak lehendik dituen agiriak edo beste administrazioen batek eginak diren agiriak. Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren azken xedapenetatik hamabigarrenak 39/2015 Legearen eragindako aldaketaren ondorioz, administrazio jarduleak interesdunek aurkeztu ez dituzten dokumentuak biltzeko ahala du, interesdunak aurka agertu ezean. 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aplikatzearen ondorioz, datuak tratatzeko ez da interesdunaren adostasunik behar, lege gaikuntza baino. Azken kasu horretan ere, tratamenduaren aurka egin dezake datuen titularrak.

Hala ere, laguntzen eta dirulaguntzen deialdi askotan eskatzaileek familia-unitateko edo bizikidetz-unitateko beste pertsona batzuen datu pertsonalak aurkeztu behar izaten dituzte. Baina, hala, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua aplikatzea zailago gertatzen da, ezen nekez agertu ahal baitira horren aurka, jakin ere ez dakitenek euren datuak tratatu egingo dituztela, familia-unitate bereko beste pertsona batek aurkeztu dituelako laguntza edo dirulaguntza bat eskatzeko.

Zailtasun hori bertan behera geratzen da 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapeneko aurreikuspenarekin, administrazio publikoen egiaztatze ahala arautzen duelako, eta badirudi ahal horrek balio duela egiaztatze interesdunak adierazitako datu guztiak, bai bereak bai inorenak. Dena dela, egiaztatze ahalak ez du balio datu-kategoria berezietarako; izan ere, halako datuak adostasunik gabe tratatu ahal izateko, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 9.2 artikuluan zerrendatutako salbuespenetako bat egon behar da. Zerga-arloko informazioarako ere ez du balio.

Zerga-arloko informazioari dagokionez, urriaren 1eko 40/2015 Legearen, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenaren hamazazpigarren xedapen gehigarriak agintzen du berariazko araudiak xedatutako duela zerga-arloko informazioaren



atzipena, lagapena eta komunikazioa. Zehatz esateko, zergei buruzko lege orokorrak eta zergei buruko foru arauak finkatzen dute berariazko araudia. Eta guztiek xedatzen dute zerga informazioak izaera erreserbatua duela, eta zergak ezartzeko erabiliko dela, eta informazioa ezin izango zaiela hirugarrenei laga, eta lagatzekotan, arau horiek ezarritako salbuespenak baliatuta izan beharko dela.

Salbuespen horietako bat da zerga-arloko datuak laga ahal zaizkiela beste Administrazio Publiko batzuei, administrazio horiek euren eginkizunak burutzeko, baina zergapetuen alde aurreko baimenarekin. Era berean, zerga-arloko araudiak aurreikusten du datuak laga ahal zaizkiela Administrazio Publikoei titularren adostasunik gabe, Europar Batasuneko funts publikoen konturako laguntzen eta dirulaguntzen arloko iruzurraren aurkako eginkizunetan.

Bi salbuespen horiek dira lege-titulu bakarrak laguntza edo dirulaguntza kudeatzen duen administrazioari zerga-arloko datuak komunikatzea legitimatzeko.

Hala ere, esan behar da, oro har, Administrazio Publikoek egiten dituzten datu pertsonalen tratamenduek ez dutela oinarrian ukituen adostasunik, alde bi horien artean desoreka dagoelako; eta desorekak ez duelako uzten adostasuna adierazten Erregelamendu Orokorrak ezarritako baldintzekin. Era horretako tratamenduek interes publikoa asebetetzea izan ohi dute helburu, edo botere publikoak egikaritzea; eta lege-mailako arauak esleitutako eskumenetan dute jatorria.

Horrez gain, laguntzak edo dirulaguntzak jaso eta eskuratzeko iruzurraren aurkako borroka interes orokorreko helburua da, eta legitimatu egiten du zerga-arloko datuen adostasunik gabeko tratamendua; eta zerga-administrazioei dagokie zehaztea zerga-araudiak helburu horretarako jasota duen salbuespenaren helmena.

- **Elkargo profesional bati elkargokide baten datuak komunikatzea diziiplina-helburuarekin (CN19-011)**

Elkargo profesionala legitimatuta dago, legeak esleitzen dion diziiplina-ahala baliatzeko, elkargokideei buruz beharrezkoa den informazioa eskuratzeko. Baina, helburu hori lortzeko behar diren datuak bakarrik tratatu ahal izango ditu, eta ahal publiko hori burutzen ari dela iristen zaion informazioa isilpean gorde beharra dauka.

- **Etxebizitza batzuen katastro-titularren identifikazio-datuak lagatzea (CN19-012)**

Eusko Jaurlaritzako estatistika-organoak Foru Aldundiari egindako eskarian ez da behar bezain argi geratzen zein den egin nahi den estatistika-eragiketaren norainokoa. Katastro-titulartasunari buruzko datuak hutsik dauden etxebizitzei buruzkoak diren ala estatistika-azterlanaren xede diren etxebizitza guztiei buruzkoak direla ulertu behar den.



Datu pertsonalen komunikazioa Erregelamendu Orokorraren 6.1 e) artikuluan babespean egingo litzateke -3/2018 Legearen 25. artikuluekin bat etorrita-, baita estatistika-arloko legeriaren babespean ere (4/1986 Legea, apirilaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzkoa, 10. artikulua).

Katastroko datuak direnez, arloko legeriak ezartzen du babestutako datuak direla izena, abizenak, identifikazio-kodea eta egoitza (Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen Testu Bategina, 51. artikulua). Lege horretan hainbat salbuespen xedatzen da 53.2 artikuluan, besteak beste babestutako katastroko informazioa atzitu ahal izango dutela Estatuko Administrazio Orokorraren eta lurraldeetako Administrazio Publikoen organoek, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak eta Gizarte Segurantzako erakunde kudeatzaileek eta zerbitzu erkideek, eskumenaren, egokitasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioetatik eratorritako mugekin, ukituaren adostasunik ez izan arren.

Katastro-titulartasuna ere zerga-arloan datu garrantzitsua izan daiteke. Beraz, hori ere isilpeko datua izango litzateke (Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1 artikulua). Dena dela, Administrazio Publikoei komunikatu ahalko zaie, estatistikak egiteko erabiltzen denean, 4/1986 Legea betetzeko, baldin eta lagako diren zerga-datuak erabiliz egingo diren estatistika-lanen helburuak azaltzen badira. Datuok, betiere, multzoka erabili behar dira datuen txostenak egiteko, eta ezin dira gorde norbanakoen arabera bereizita [Zergei buruzko buruzko Foru Arau Orokorraren 92.1 artikuluko k) apartatua].

Horrenbestez, Eusko Jaurlaritzako estatistika-organoak irispidean izan ahalko ditu Foru Aldundiak eskura dauzkan etxebizitzaren katastro-titularren nortasun-datuak, Higiezinaren Katastroari buruzko Legearen testu bateginaren 53.2 a) artikuluan eta 6/2005 Foru Arauaren 92.1 k) artikuluan ezartzen diren mugekin. Muga horien arabera, egin beharreko estatistika-eragiketaren bidez lortu nahi den helburu jakin eta zehatzetarako behar-beharrezkoak diren datu pertsonalak soilik bildu ahalko ditu. Hala beteko dira zilegitasun-printzipioa, helburua mugatzeko printzipioa eta datuak minimizatzeko printzipioa, Erregelamendu Orokorraren 5.1 artikulua ezartzen dituen horiek.

3.3. TXOSTENAK

Atal honetan sartzen ditugu honako hauek:

- 2/2004 Legea garatzen duten xedapen orokorretako proiektuei buruzko derrigorrezko txostenak, 17.1.h) artikulua xedatzen duenaren arabera.
- Nahitaez erantzun beharreko estatistikak finkatzen dituzten lege-xedapenei buruzko proiektuen gaineko txostenak, 2/2004 Legearen 17. 1.l) artikulua eta urriaren 10eko 309/2005 Dekretuaren, DBEBren Estatutua onartzen duenaren 5. a) artikulua xedatzen dutenaren arabera.
- Bestelako lege-xedapenei eta hitzarmenei buruzko txostenak, ebazteko ea datu pertsonalei buruzko araudiarekin bat datozen.



2019an sei legezkotasun-txosten egin dira:

- Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua bigarrenaz aldatzen duen dekretu-proiektua
- Euskadiko Ondareari buruzko Erregelamendua onartzeko dekretu-proiektua
- Osasun-arloko profesionalen informazio-sistemari buruzko dekretu-proiektua
- Gazteriaren Euskal Legearen aurreproiektua
- Segurtasuneko sailburuaren agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren akreditazio profesionalerako elementuei buruzkoa
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeko modua arautzen duen agindua

3.4. AHOlkULARITZA-BILERAK

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak duen izaera proaktiboa eta zerbitzu publikoa izateko asmoa kontuan hartuta, hainbat bilera egin ditugu Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait Administrazio eta Erakunde Publikorekin, eta aholkularitza eman diegu, haien eskumen esparruan burutu nahi dituzten jarduerak oinarritzeko eskubidean izan dezaketen eraginaren gainean eta onartu nahi dituzten erregulazioen gainean. Azpimarratu nahi dugu Agentziak egiten duen aholkularitza-lana ez dela egiten bakarrik administrazio bakoitzak dituen kezkak argitzeko, datu pertsonalen babesaren kultura zabaltzeko eta hedatzeko konpromisoa betetzeko baizik.

Horrekin lotuta, 2019an Agentziako Aholkularitza Juridikoak honako bilera hauek egin ditu:

- Datuak Babesteko Agentzien bilera (2019-2-5)
- Bilera Bilboko CIMUBISArekin: Bilboko Udalaren wifia erabiltzen duten herritarren datuen tratamendua
- Bilera Donostiako Udalarekin: Kamerak erabiltzea Donostian autobus-erreiaren trafikoko arina ziurtatzeko
- Bilera Onkologikoa Fundazioarekin: Institutu Onkologikoaren eta Osakidetzaaren arteko lotura

3.5. KONTROL-AGINTARITZEN BILERAK

- Datuak Babesteko Agentzien Lege aholkularitzak koordinatzeko taldearen bilerak (2019-3-14 eta 2019-11-8)
- Datuak Babesteko Agentzien ikuskaritza-taldearen bilera (2019-5-7)



4. KONTROL-EGINKIZUNA

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, kontrol-eginkizuna burutzeko, datuak babesteko araudia bete egiten dela zaintzeaz gain, euskal Administrazio Publikoek behar bezala ezartzen dutela ere kontrolatzen du; eta, hala badagokio, ahal zuzentzaileak baliatu.

Gainera, interesdunek egiten dizkieten babes-eskubideen erreklamazioak ebazten ditu, tratamenduaren arduradunaren aurrean eskubide bat baliatu nahi izan eta tratamenduaren arduradunak ez badu behar bezala erantzun.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak eginkizun asko eta ahal zabalak esleitzen dizkie kontrol-agintaritzei, adibidez, ikerketa-ahalak eta ahal zuzentzaileak; horretarako, ezar daitezkeen arau-haustekak, zehapenak edo jarduera zuzentzaileak arautzen ditu.

Bestalde, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren IX. titulua zehapen-araubideari buruzkoa da, eta bertan xedatzen du arau-haustekak oso astunak, astunak eta arinak izan daitezkeela, preskripzio-epeak zehazteko ondorioetarako.

3/2018 Legeak, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoak bezala, ez du zehapen ekonomikorik ezartzen Administrazio Publikoentzat; dena dela, administrazio horiek jokabide hori eteteko edo arau-haustearen ondorioak zuzentzeko hartu beharreko neurriak ezarriko dituzte. Bestalde, datuak babesteko agintaritzak diziplinako jarduketak abiarazi ahal dituela aurreikusten da, horretarako adina zantzu egonez gero.

Baina horrez gain -eta legeak dakarren alderdi berria da hau-, arau-haustekak agintariei eta zuzendariei egoztekoak direnean, eta egiaztatzen bada badela tratamenduari begira egindako txosten tekniko edo gomendiorik eta ez zaiela behar bezala jaramon egin, kargudun arduradunaren izena daraman ohartarazpen bat sartuko da ebazpen zehatzailean, eta Aldizkari Ofizialean argitaratzeko aginduko da.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra konturatzen da herritarrek tresnak behar dituztela benetan bakoitzak kontrolatu ahal izateko bere informazio pertsonala eta, horretarako, datuetarako irispiderako eskubideari, datuak zuzentzekoari, ezereztekoari eta tratamenduaren aurka egitekoari beste berri bi gehitu dizkie: tratamendua mugatzeko eskubidea eta datuen eramangarritasun-eskubidea.

Horrekin lotuta, zera ikusten da: Agentziak jaso dituen babes-eskubideek agerian uzten dutenez, herritarrak kezkatuta daude norberaren datuen gaineko kontrola dela eta.

Erreklamazioa jaso duten Administrazioek elkarlan egokia eman dute, orokorrean; hala ere, batzuetan, Agentziak behin eta berriz eskatu behar izan du informazioa, baita ohartarazi ere ezen, Datuak Babesteko Agintaritzari ez laguntzea jokabide zehagarria dela, Erregelamendu Orokorraren eta 3/2018 Lege Organikoaren arabera. Gainera, eta lehenengo aldiz, zehapena ezarri du elkarlanerako



betebehar hori urratzeagatik, bai eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak emandako ebazpen bat ez betetzeagatik ere.

4.1. ESKUBIDEEN BABESA

2019an % 100 hazi da Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aurkeztutako babes-erreklamazioen kopurua. Erreklamazio horietako asko baietsi ditugu, Administrazio Publikoek berandu bete dutelako interesdunek baliatu duten dena delako eskubidea.

Alde horretatik, berriro ere esan behar da eskubidea epez kanpo betetzea, oinarrizko eskubidea urratzea dela. Gainera, Administrazio Publikoei esan egin behar zaie nahitaez erantzun behar dietela herritarrek baliatzen dituzten eskubideen eskabideei. Administrazio-isiltasuna ez da besterik gabe administrazio-jardunbide desegoki bat, urraketa bat delako, hau da, batetik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak agintzen duen «ebatzi beharra» urratzen duelako, eta, bestetik, datuen babesari buruzko araudia ere urratzen duelako.

Eskubideak egikaritzeari dagokionez, argi eta garbi nagusi izan dira datu pertsonaletara iristeko eta haiek

ezerezteko eskariak, funtsean historia klinikoarekin eta polizia-fitxategietan dauden datuei buruzko eskariak. Era berean, aipatzekoa da herritarrek gero eta interes handiagoa dutela Interneten, igarotako denborarengatik edo beste hainbat inguruabarrengatik, izen-abizenen arabera egindako bilaketen bitartez eskura jarri behar ez diren informazioak desindexatzeari buruz. Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean ezarritako gainerako eskubideak egikaritzeari buruzko arazoak oso-oso gutxitan agertu dira.

Hona 2019an ebatzitako babes-eskeak.

4.1.1. Atzipen-eskubidea

▪ Polizia-datuak atzitzea (ET18-020)

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen eta Segurtasun Sailari eskatu zitzaion hamar egun balioduneko epean, jakinarazpena jaso ostean, erreklamatzailari ziurtagiria igor ziezaion, zeinaren bidez irispidea emango zitzaion bere datu pertsonaletara, Erregelamendu Orokorren 15. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.

▪ Polizia-datuak atzitzea (ET18-021)

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen eta Segurtasun Sailari eskatu zitzaion hamar egun balioduneko epean, jakinarazpena jaso ostean, erreklamatzailari ziurtagiria igor ziezaiola, zeinaren bidez irispidea emango zitzaion bere datu pertsonaletara, Erregelamendu Orokorren 15. artikuluan ezarrita dagoenaren arabera.



- **Aparkatzeari buruzko arau-hauste batengatik irekitako espedientea atzitzea (ET18-025)**

Formalki baietsi zen Barakaldo Udalean aurkeztutako erreklamazioa, zein Udalek erreklamazioa izapidetu bitartean -hau da, lege ezarritako epetik kanpo- aztertu baitzuen erreklamatzailerak egikaritutako atzipen-eskubidea.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET18-026)**

Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi zen; izan ere, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak erreklamatzaileraren esku jarri zituen historia klinikorekin datu guztiak, baina erreklamatzailerak ez zuen dokumentazioa jaso, erakunde publikoarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik.

- **Historia klinikoa atzitzea (ET18-027)**

Formalki baietsi zen aurkeztutako erreklamazioa; izan ere, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak berandu -babes erreklamazioa izapidetu bitartean- hartu zuen aintzat erreklamatzailerak egikaritutako atzipen-eskubidea.

- **Polizia-datuak atzitzea (ET19-003)**

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen, ez zelako egiaztatu erreklamazioa jaso zuen Administrazioak behar bezala bete zuenik atzipen-eskubidea; orobat, Segurtasun Sailari errekerimendua egin zitzaion, erreklamatzailerari bidea eman ziezaion bere datu pertsonaletara irispidea izateko, Erregelamendu Orokorren 15. artikuluan ezarritako baldintzak zorrotz beteta.

- **Polizia-datuak atzitzea (ET19-004)**

Erreklamazioa baietsi zen, irispidea izateko eskubidea lege ezarritako epetik kanpo artatu zelako.

- **Polizia-datuak atzitzea (ET19-005)**

Agentzian aurkeztutako babes-erreklamazioa ez zen onartu, tratamenduaren arduradunak irispidea izateko eskubidea egikaritzeko lege ezarritako epearen aurretik (hilabeteko epea dago, Erregelamendu Orokorren 12.3 artikuluen arabera) aurkeztu zelako.

- **Polizia-datuak atzitzea (ET19-006)**

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen, ez zelako egiaztatu erreklamazioa jaso zuen Administrazioak behar bezala bete zuenik atzipen-eskubidea; orobat, Segurtasun Sailari errekerimendua egin zitzaion, erreklamatzailerari bidea eman



ziezaion bere datu pertsonaletara irispidea izateko, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan ezarritako baldintzak zorrotz beteta.

▪ **Polizia-datuak atzitzea (ET19-007)**

Erreklamazioa ezetsi zen, ikuskapen-fitxategiei buruzko informazio pertsonala irispidean izateko eskubideari aplikatu ahal zaizkiolako Erregelamendu Orokorraren 23. artikuluan, 3/2018 Lege Organikoaren 24. artikuluan eta 19/2013 Legearen 14.1 e) artikuluan jasotako mugak.

▪ **Polizia-datuak atzitzea (ET19-008)**

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen, ez zelako egiaztatu erreklamazioa jaso zuen Administrazioak behar bezala bete zuenik atzipen-eskubidea; orobat, Segurtasun Sailari errekerimendua egin zitzaion, erreklamatzailari bidea eman ziezaion bere datu pertsonaletara irispidea izateko, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan ezarritako baldintzak zorrotz beteta.

▪ **Polizia-datuak atzitzea (ET19-009)**

Aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen, ez zelako egiaztatu erreklamazioa jaso zuen Administrazioak behar bezala bete zuenik atzipen-eskubidea; orobat, Segurtasun Sailari errekerimendua egin zitzaion, erreklamatzailari bidea eman ziezaion bere datu pertsonaletara irispidea izateko, Erregelamendu Orokorraren 15. artikuluan ezarritako baldintzak zorrotz beteta.

▪ **Udalak izapidetutako espedienteak atzitzea (ET19-014)**

Bilboko Udalaren aurka erreklamaturako babes batzuk ez ziren onartu, hain zuzen ere, espedienteen dauden agirietatik eta erreklamatzailaren beraren adierazpenetatik ondorioztatzen zenez, kasu honetan artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea baliatu nahi zelako, eta eskubide hori 39/2015 Legearen zegoelako araututa. Beraz, 39/2015 Legearen arabera bideratu beharko zen. Eskubide hori egikaritzeari buruz ebaztea ez zegokion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Bilboko Udalari berari baizik. Egintza horren aurka errekurtsioa aurkez zitekeen administrazio-bidean edo auzien jurisdikzioan.

Interesdunak ebazpenaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen administrazio-bidean (RR 19-002), eta errekurtsioa ezetsi zen.

▪ **Historia klinikoa atzitzea (ET19-015)**

Aurkeztutako erreklamazioa ezetsi zen; izan ere, egiaztatu zenez, irispidea izateko eskubidea 2019ko urtarrilean egikaritu zen, eta 2019ko apirilean beste eskari bat aurkeztu zen, baina denbora-epe labur horretan eskubidea berriro egikaritzeko arrazoi legitimorik ez zen agertu.



▪ **Udalak izapidetutako espedienteak atzitzea (ET19-017tik ET19-036ra)**

Bilboko Udalaren aurka erreklamatutako babes batzuk ez ziren onartu, hain zuzen ere, espedienteen dauden agirietatik eta erreklamatzailearen beraren adierazpenetatik ondorioztatzen denez, kasu honetan artxiboak eta erregistroak atzitzeko eskubidea baliatu nahi zelako, eta eskubide hori 39/2015 Legearen dagoelako araututa. Beraz, 39/2015 Legearen arabera bideratu beharko zen. Eskubide hori egikaritzeari buruz ebaztea ez zegokion Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Bilboko Udalari berari baizik. Egintza horren aurka errekurtsua aurkeztu zitekeen administrazio-bidean edo auzien jurisdikzioan.

Interesdunak ebazpenaren aurkako errekurtsua aurkeztu zuen administrazio-bidean (RR 19-005), eta errekurtsua ezetsi zen.

▪ **Zerga-arloan garrantzia duten datuak eskuratzea, ezabatzea, tratamendua mugatzea eta tratamenduaren aurka egitea (ET19-037, ET19-038, ET19-039, ET19-040, ET19-041)**

Erreklamatzaileak bere idazkian azaltzen zuenez, bere datu pertsonalak iruzurrez bildu ziren, Foru Ogasunak entitate pribatu batzuei igorritako informazio-eskari batzuen ondorioz, eta horregatik zehapena ezarri zen datu pertsonalen babesaren arloko arau-hauste astun batengatik. Hori zela eta, erreklamatzaileak, bere izenean eta ordezkatzan zituenen izenean, Bizkaiko Foru Ogasunean bere datuak eskuratzeko eta ezabatzeko edo, subsidiarioki, datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eta horren aurka egiteko eskubidea egikaritu zuen. Interesdunek Agentziaren babesa eskatu zuten, haien ustez eskubide horiek ez zirelako zaindu.

Espedienteen zeuden agirietatik ondorioztatu zenez, Foru Ogasunak interesdunei ez zizkien ukatu egikaritutako eskubide guztiak. Aitzitik, eskuratzeko eskubidea behar bezala eta garaiz bete zuen Administrazioak.

Ezabatzeko eskatu zen, eta horri dagokionez, datuak mantentzeak beharrezko izaten jarraitzen zuenez Foru Ogasunak bere helburua betetzen jarrai zezan - Espainiako Konstituzioaren 31. artikulua betetzea (zergapeko guztiak bidezko ekarpena egitea zerga-kargan)-, erreklamatutako informazioaren ezabaketa ezin zen onartu.

Hala ere, Foru Ogasunari gogorarazi zitzaionez, datuak xede horretarako beharrezkoak ez direnean, tratamenduaz arduratzen den Zerga Administrazioak ezabatu beharko ditu.

Aurka egiteko eskubidea ere erreklamatu zen, baina hori ere ezin zen onartu; izan ere, Erregelamendu Orokorraren 21.1 artikulua aplikatu ahal izateko, interesdunak, interes publikoko xede bat betetzea edo arduradunari emandako botere publikoak egikaritzea (zergak aplikatzea) oinarri duen tratamenduaren aurka egin nahi duen horrek, bere egoera pertsonalarekin zerikusia duten arrazoiak azaldu behar ditu, baina eskarian ez zen halakorik aipatzen.



Azkenik, mugatzeko eskubidea, hau da, datuak ezabatzeko eskubidearen subsidiarioa den hori ere ezin zen baietsi; izan ere, legitimitatea ematen dioten eta Erregelamendu Orokorren 18. artikuluan xedatzen diren inguruabarretako bat ere ez zen betetzen.

Datuen tratamendua mugatzeko edo eteteko eskubidea, ezabatzeko eskubidearekin bateraezina den hori baiesteko, arduradunak datuen tratamendua egiteko aldarrikatzen duen interes legitimoaren aldean, interesdunek euren egoera pertsonalari buruz daukaten interes kontrajarriak ponderatu beharko lirateke, baina ez zen halako interesik aipatu.

Horregatik guztiarengatik, aurkeztutako erreklamazioak osorik ezetsi ziren.

Erreklamatzailerik agentziaren ebazpenaren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuten administrazioarekiko auzien jurisdikzioan.

▪ **Polizia-datuak atzitzea (ET19-042)**

Segurtasun Sailburuordetzaren aurka jarritako erreklamazioa baietsi zen, arrazoi formalak tarteko, eskubidea epez kanpo artatu zelako.

▪ **Historia klinikoa atzitzea (ET19-043)**

Erreklamatzailerik aurkeztutako erreklamazioa baietsi zen, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari errekerimendua egin zitzaion, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar egun balioduneko epean erreklamatzailerari egiaztatzea igor ziezaion. Egiaztatze horretan azaldu behar zen erreklamatzailerik egikaritutako eskuratze-eskubideari jaramon egin zitzaiola edo ukatu egin zela, eskaria zergatik beteko ez zen azalduta.

▪ **Polizia-jardunekin zerikusia duten irudien grabazioak eskuratzea (ET19-047)**

Eraikin bateko bideozaintza-sistemek jasotako grabazioak Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari igorri zitzaizkion, eta grabazio horiek eskuratzeko eskatu zen.

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren laugarren xedapen iragankorreanezarrita dagoenaren arabera, kasu honetan Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan agintari eskudunek arau-hausteak edo zigor penalak prebenitu, ikertu, detektatu edo epaitzeko asmoz datu pertsonalak tratatzeari buruz ezarritako araubidea aplikatu behar zen.

Eskuratzeko eskubidea mugatu izana bat dator Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 23. artikuluekin; beraz, egindako erreklamazioa ezetsi zen.

▪ **Euskaltelen dauden datuak atzitzea (ET19-048)**

Erreklamazioa ez zen onartu, Agentziaren eskumenekoa ez zelako.



- **EITBren grabazioak atzitzea (ET19-049)**

Erreklamazioa ez zen onartu, Agentziaren eskumenekoa ez zelako.

- **Hautaketa-prozesu batean grabatutako bideo bat atzitzea (ET19-051)**

Erreklamatzailleak Polizia eta Larrialdien Euskal Akademian hautaketa-prozesu baten barruan egindako elkarrizketa baten bideo-grabazioa atzitzeko eskubidea egikaritu zuen. Erreklamaturako Administrazioak azkenean atzitzeko baimena eman zuen, baina legean horretarako ezarritako epea igaro ondoren. Agentziak erreklamazioa baietsi zuen, eskaria onartu arren eskubidea berandu asebate zelako, eta arduradunari gogoratu zitzaion atzipen-eskubidea epez kanpo asebetetzea datuak babesteko oinarritzko eskubidearen urraketa dela.

4.1.2. Ezabatzeko eskubidea

- **Historia kliniko bateko datuak ezabatzea (ET19-001)**

Erreklamatzaillearen uzia zen duela 8 urte baino gehiago Osakidetza sare publikoko bi ospitaletan jasotako laguntzarekin zerikusia duten datuak bere historia klinikotik ezaba zitezela. Osakidetza mediku baten txostena aurkeztu zuen: txosten horrek dioenez, orduz geroztik ez zuen izan gaixotasun psikologikoen gertakaririk, eta ez zioten psikotropikorik agindu.

Kontuan hartuta aurreko hori guztia eta zenbat denbora igaro zen, eta zehazki kasu honetan, ezabatzeko zein datu eskatzen ziren eta datu horiek arrazoi medikoetan oinarrituta mantentzeko beharrianari buruz txostenik ez zegoela, egindako babes-eskaria baietsi zen.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ebazpen horren aurkako errekurtsioa aurkeztu zuen auzi-bidean.

- **Datuak ezabatzea Googlen (ET19-002)**

Erreklamazioa ez zen onartu, Agentziaren eskumenekoa ez zelako.

- **EHAAn argitaratutako datuak ezabatzea (ET19-011)**

Aurkeztutako erreklamazioa formalki baietsi zen, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak interesdunaren eskubidea berandu artatu zuelako.

- **EHAAn argitaratutako datuak ezabatzea (ahaztea) (ET19-012)**

Erreklamatzailleak EHAAn berari buruz argitaratutako informazio jakin bat ezabatzeko (ahazteko) eskubidea egikaritu zuen (Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiaren iragarki bat izan zen). Datuen tratamendua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bidez zabalduz egin zen. Horrek zera esan nahi du:





kasu horretan, datuak ezabatzeko Interneteko bilatzaileek ukitutako pertsonaren izena eta abizenak sartzean ematen dituzten loturak desindexatu behar dira, abenduaren 5eko 3/2018 Legearen, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 93. artikuluan onartzen denez.

Kontuan hartuta argitalpena eginez xede jakin bat lortu nahi zela, eta erreklamatzaileak bizitza publikoan garrantzirik ez zeukala, publiko orokorraren interesa ezin zitzaien gailendu Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 7. eta 8. artikuluetan onartutako eskubideei, datu horiek aurrerantzean ez baitziren beharrezkoak, zein xedetarako bildu edo tratatu ziren kontuan hartuta.

Agentziak baietsi zuen erreklamatzaileak aurkeztutako erreklamazioa, haren eskubidea legez ezarritako epea igarotakoan artatu zelako.

Ebazpen horren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zen; errekurtsogilearen esanetan, EHAA-n artean bi agiri zeuden, bata pdf formatuan eta bestea epub formatuan, zeinetan edozeinek haren datu pertsonalak ikusi ahal baitzituen.

Agentziak errekurtsoa ezetsi zuen, epub bertsioan errekurtsogilearen datuak ezabatu zirela egiaztatu zelako; hori bera Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak ere egiaztatu zuen, bere alegazio-idazkian. Pdf formatuko agiriari dagokionez, bertan agertzen diren datu pertsonalak ezin dira ezabatu, Aldizkariaren bertsio ofiziala delako. Aldizkari horren ezaugarriak behinena izaera autentikoa, osoa eta aldaezina da, eta kasu horietan desindexatzea da bide bakarra ezabatzeko eskubidea eta Aldizkariaren izaera autentikoa, aldaezina eta osoa uztartzeko.

▪ EHAA-n argitaratutako datuak ezabatzea (ahaztea) (ET19-013)

Erreklamatzaileak EHAA-n berari buruz argitaratutako informazio jakin bat ezabatzeko (ahazteko) eskubidea egikaritu zuen (doako justiziako prozedura batean argitaratutako ediktu bat izan zen). Datuen tratamendua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren bidez zabalduz egin zen. Horrek zera esan nahi du: kasu horretan, datuak ezabatzeko Interneteko bilatzaileek ukitutako pertsonaren izena eta abizenak sartzean ematen dituzten loturak desindexatu behar dira, abenduaren 5eko 3/2018 Legearen, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 93. artikuluan onartzen denez.

Kontuan hartuta argitalpena eginez xede jakin bat lortu nahi zela, eta erreklamatzaileak bizitza publikoan garrantzirik ez zeukala, publiko orokorraren interesa ezin zitzaien gailendu Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 7. eta 8. artikuluetan onartutako eskubideei, datu horiek aurrerantzean ez baitziren beharrezkoak, zein xedetarako bildu edo tratatu ziren kontuan hartuta.

Agentziak baietsi zuen erreklamatzaileak aurkeztutako erreklamazioa, haren eskubidea legez ezarritako epea igarotakoan artatu zelako.



- **Udalean argitaratutako datuak ezabatzea (ET19-016)**

Formalki baietsi zen erreklamatzailerak Bilboko Udalean aurkeztutako erreklamazioa, haren eskubidea epez kanpo artatu zelako. Aldiz, erreklamazioa materialki ezetsi zen; izan ere, espedientean agertzen ziren agirietatik ondorioztatzen zenez, ezin ziren ezabatu erreklamatzailerak eskatutako datuak, datu horiek mantentzeko oinarri legítimo zegoelako. Horren arrazoia zen ondasun horiei buruzko datuek lotura estua zutela erreklamatzailerari tasa, isun, zerga eta ordainagiriengatik eskatutako kopuru batzuekin, baina erreklamatzailerak ez zuela ezer ere ukatu edo eztabaidatu horri buruz. Beraz, aipatutako manu horretan ezabatzeko eskubidea mugatzeari buruz azaltzen ziren inguruabarrak gertatuko ziratekeen.

- **ALHAOn argitaratutako datuak ezabatzea (ET19-044)**

Erreklamatzailerak ALHAOn argitaratutako bi iragarki ezabatzeko eskatu zuen.

Iragarkiak ezarritako epean ezabatu ziren, baina erreklamatzailerari ez zitzaion horren berri eman, araudiak hori eskatzen duen arren; beraz, egindako erreklamazioa baietsi zen.

- **Udal baten web-orrian argitaratutako zenbait datu ezabatzea (ET19-055)**

Udalaren web orrian argitaratutako informazioa ez zegoen eguneratuta; horregatik, hori Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluko zehaztasunaren printzipioaren aurkakoa zen, eta erreklamatzaileraren pribatutasunari kalte egiten zion; horrenbestez, lotura horren aurka egindako babes-erreklamazioa baietsi zen.

4.1.3. Zuzentzeko eskubidea

- **Justizia Administrazioan agertutako datuak ezabatzea (ET19-010)**

Erreklamazioa ez zen onartu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eskumenekoa zelako.

4.2. SALAKETAK

Pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako erreklamazioak dira, euskal Administrazio edo erakunde publikoek datu pertsonalen babesaren arloko araudia urratuz egiten dituzten jarduerak direla-eta. Beraz, Legean zehaztutako arau-hausteak dira.

2019an egindako salaketen kopurua 2018koaren antzekoa izan zen; hain zuzen ere, 2018an salaketen kopuruak nabarmen egin zuen gora.

2019an hainbat salaketa ezetsi genituen, pertsona fisikoei buruzkoak eta izaera juridiko pribatuko erakundeei buruzkoak zirelako, eta halakoak DBEBren kontrolatik kanpo daudelako. Datuak Babesteko Espainiako Agentziara bidali



genituen, haren eskumenekoak zirelako (DN19-023, DN19-024, DN19-050, DN19-051, DN19-052, DN19-058 eta DN19-068).

Gainontzeko salaketak arau-hauste prozedura bihurtu ziren edo artxibatu egin genituen, ez zegoelako arau-hauste prozedura hasteko nahikoa arrazoirik.

4.2.1. Artxibatutako salaketak

- **Mankomunitate bateko gizarte-langile batek egindako txosten bat adostasunik gabe lagatzea (DN18-020)**

Mankomunitate bateko Gizarte Zerbitzuen aurkako salaketa bat aurkeztu zuten, adingabe baten egoerari eta amarekin zegoen gatazkari buruzko txosten bat laga zitzaiolako jagoletza ez zeukan gurasoari, salatzailearen adostasunik gabe (salatzailea adingabearen ama da). Arazoa konpontzeko neurririk onenei buruzko iritzia azaltzen zuen txosten hori, gerora, aitak epaitegian aurkeztu zuen, eta horrekin batera semearen jagoletza eskatzeko demanda jarri zuen.

Salaketaren xede zen jokabideak ez zuen urratzen datuen babesa, oinarri legitimoa dagoelako urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoan, eta Kode Zibilean, zeren eta txostena guraso-ahala daukan gurasoari entregatu baitzitzaion (guraso horrek jagoletza ez eduki arren), adingabearen interes gorena baloratu baitzen eta txosten hori hain zuzen ere Epaitegian adingabearen jagoletza-eskarirako oinarri gisa aurkezteko erabili baitzen.

- **Datu fiskalak lagatzea adostasunik gabe (DN18 -038)**

Foru Ogasunaren aurkako salaketa aurkeztu zuten, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpenak bidegabe atzitzeagatik eta geroago hirugarren bati lagatzeagatik.

Espedienteko agirietan ez zen inon ere agertzen aitorpenak bidegabeki atzitu zirenik, eta hala adierazi zuen Foru Ogasunak: salatzaileari birritan ERANSKIN bat igorri zion, zeinean azaltzen baitzitzaion zein datatan atzitu zen haren aitorpena, hark legez kanpo atzitu zutela susmatzen zuen epealdian, eta eranskin horrez gain egun horietan haren aitorpenak atzitu izanaren egiaztagiria igorri zion. Hau da, aitorpenak 6 aldiz atzitu ziren eta aldi horietan guztietan behar bezalako justifikazioa zegoen; hortaz, salaketa artxibatu zen.

- **Osasunari buruzko datuak agerian uztea (DN18-047)**

Erreklamatzailleak salatu zuen bere historia klinikoa bidegabeki atzitu zutela 2015ean, adostasunik gabe eta lege-gaikuntzarik gabe.

Azken aldiz 2015eko urrian atzitu zuten, eta une hartan hasi zen ustezko arau-hauste baten preskripzio-epea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, berriz, ustezko arau-haustea gertatu eta bi urte baino gehiago igarotakoan aurkeztu zen salaketa,



eta edozein kasutan, horregatik ezinezkoa zen arau-hausteagatiko prozedura irekitzea, preskripzioa zela-eta.

- **Gidari batek jarritako kexa bat lagatzea hiri-autobusen enpresa emakidadunari (DN18-055)**

Salatu zutenez, udal batek garraio-zerbitzuaren emakida duen enpresari agerian jarri zion emakidadun horren langile batek toki-erakundean jarritako erreklamazioa, datu pertsonalak barnean zirela.

Arloko legeriaren bat etorriz, udalak emakidadunaren kudeaketa fiskalizatzeko eskubidea dauka, eta horretarako zerbitzua ikuskatu ahalko du, eta zerbitzugintza egokia mantentzeko edo lehengoratzeko aginduak eman ahalko ditu.

Eta hala, eginkizun hori egin ahal izateko, udalak zerbitzu publikoaren enpresa emakidadunari komunikatu behar zizkion garraio publikoko zerbitzugintzari buruz azaldu zizkioten gertakariak, egiazta zitzan, eta kasu zehatz horretan, enpresa emakidadunari erreklamazioa aztertu ahal izateko beharrezkoa den informazio guztia eman behar zitzaion; informazio horren barruan, halabeharrez, bidaiarien autobusa eta gidaria identifikatu behar ziren.

Gainera, salatzaileak berak onartu zuenez, gertakariak lehenengoz enpresa emakidadunari azaldu zizkion, eta geroago udalari jakinarazi zizkion erreklamazioaren bidez.

Salaketa artxibatu zen, Agentziaren ustez udalak gertakariak eta erreklamazioaren nortasuna enpresa emakidadunari agerian jarri izanak ez zuelako urratzen datu pertsonalen babeserako oinarritzko eskubidea.

- **Erakundearen Etika Batzordearen ebazpenak argitaratzea (DN18-056)**

Foru Aldundiaren web orrian, zehazki Erakundearen Etika Batzordearen web loturan Batzorde horren ebazpen batzuk argitaratu zirela salatu zen; salatzailearen esanetan, argitaratu ziren moduan, ebazpen horien aztergai den enplegatu publikoa bera zela azaltzen zen.

Salaketa artxibatu zen; izan ere, zehazki, salaketaren kasuan, ebazpenak ez ziren osorik argitaratu; aitzitik, salaketa jarri zuen funtzionarioaren datu pertsonalei buruzko informazioa isildu zen, baita funtzionario hori identifikatzeko moduko gertakari edo inguruabarrak ere.

- **Lanpostu baten deialdian datu pertsonalak argitaratzea (DN18 -061)**

Salatu zenez, Udal Kirol Erakunde batek bere iragarki-oholean eta web orrian hautaketa-prozesu batean onartutako pertsonen behin-behineko zerrenda eta behin betikoa argitaratu zituen, eta baztertutakoen identifikazio-datuak azaldu zituen: izena, abizenak, NANA eta baztertutako pertsonak ez onartzeko arrazoiak.

Agentziaren ustez, datu horiek argitaratu izanak ez du urratzen datu pertsonalen babeserako eskubidea, Erregelamendu Orokorraren 6.1 e) artikuluan tratamendu



horretarako jasotzen den oinarri juridikoa dagoelako; horregatik, salaketa artxibatu zen.

Hala ere, Administrazioari honako hau azaldu zitzaion: etorkizunean hautaketa-prozesuen deialdirik eginez gero, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zazpigarren xedapen gehigarrian xedatzen dena bete beharko zuen (aztergai zen prozedurarako manu horrek ez zeukan indarrik, legea indarrean jarri zenerako hasia zelako prozedura).

▪ **Ikastaro bat ematean erabiltzailea eta pasahitza agerian uztea (DN18-064)**

Ikastaroa emateaz arduratzen zen enpresak zerbitzu-prestazioko kontratua sinatuta zeukan, eta tratamendu-eragile gisa jarduten zuen; gainera, langileek beraiek konfidentzialtasun-klausulak sinatuta zeuzkaten. Beraz, bidegabeko lagapen edo komunikaziorik ez zen egon, eta segurtasun-urraketa edo segurtasun-neurrien hausterik ez zen egiaztatu; hortaz, egindako datuen tratamenduak ez zuen urratzen Erregelamendu Orokorren 5. artikuluan araututako «osotasuna eta konfidentzialtasuna» delako printzipioa.

▪ **Datu pertsonal gehiegi udaltzaingoaren atestatuaren formularioan (DN18-066)**

Salatu zenez, udaltzaingoak trafiko-istripu bat jasan zuten bi pertsonetako bakoitzari (pertsona horietako bat salatzailea zen) bestearen informazio pertsonala eman zion, besteak beste ibilgailuaren titularraren eta gidariaren izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea eta telefono-zenbakia; aseguru-konpainiaren izena eta polizaren zenbakia, bai eta ibilgailuaren matrikula-zenbakia, marka, modeloa eta kolorea.

Salaketa artxibatu zen, Agentziaren ustez datu pertsonal horiek beharrezkoak eta komenigarriak zirelako eta ukitutako pertsonen erreklamazioak aurkeztu ahal izateko ezinbestekoa zena soilik biltzen zutelako (Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilari eta Aseguruari buruzko Legearen testu

bateginaren, urriaren 29ko 8/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoaren 7.1 artikulua) eta, beraz, udaltzaingoak datu pertsonalak komunikatuz edo lagaz ez zen urratzen datu pertsonalen babeserako eskubidea.

▪ **Udaleko langile batek Administrazio horrek zituen zenbait dokumentu erabiltzea salaketa penal bat aurkezteko (DN18-067)**

Udalak erabaki zuen informazio-diligentziak hastera, eta horien emaitza izan zen egiaztatu zela bi dokumentu horiek udalekoa ez den pertsona batek aurkeztu zituela epaitegi eskudunean, auzi zibil bat zela eta.

Salatzaileak berraztertze errekurtsoa (RR19-006) aurkeztu zuten artxibatze ebaizenaren aurka, baina ezetsi egin zuten.



- **Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz jakinaraztea (DN18-070)**

Argitalpena urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Prozedura Erkidearenaren 44. artikulua arabera egin zen. Artikulu horrek xedatzen duenez, ez bada jakiterik jakinarazpena non egin behar den, Estatuko Aldizkari Ofizialean iragarki bat argitaratuz egingo da. Tratamendu hori bat zetorren Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak ezartzen duen zilegitasun-printzipioarekin, legitimazioaren oinarria arau horren 6.1 c) artikulua delako.

Salaketa artxibatu zen.

- **Udalan agertzen diren datuak erabiltzea salatzailearen adostasunik gabe (DN18-071)**

Ikastaro bat kobratzeko datuen helburua bateragarria zen bere garaian bildu zirenean zegoen helburuarekin. Beraz, ez zen urratu Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean ezarritako helburua mugatzeko printzipioa (5.1. b artikulua).

- **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (DN18-072)**

Historia kliniko bat bidegabe atzitu ahal izan zela salatu zen.

Salaketa artxibatu zen, salatutako bidegabeko atzipena ez zelako egiaztatu, ezta zantzu bidez ere.

- **Ospitale bateko zuzendaria langileek zentroan segurtasuna eskatzeko sinatutako orriez jabetzea (DN19-002)**

Ospitale bateko zuzendaria langileek zentroan segurtasuna eskatzeko sinatutako orriez jabetu zela salatu zuten.

Aipatu zerrendak leku publiko batetik kentzea ez da datuen babeseko araudia urratzea, are gehiago kontuan hartuta zerrenda hori geroago erakunde horren beraren sarrerako erregistroan aurkeztu zela, eta hala, sinatu zuten pertsona guztien datu pertsonalak jakin zirela. Beraz, kasu honetan ez zegoen behar besteko arrazoirik edo, nolabait esatearren, sendotasunik, espediente bat hasteko.

- **Disoziatu gabeko demanda bat komunikatzea eta zabaltzea (DN19-003)**

UPV/EHUren aurkako salaketa bat aurkeztu zuten, langile baten demanda sindikatuari lagatzeagatik. Halaber, sindikatu batek demanda hori unibertsitateko intranetean disoziatu gabe argitaratu zuela salatu zuten.

UPV/EHUK egindako lagapena bat dator Erregelamendu Orokorrean ezartzen den zilegitasun-printzipioarekin, uztailaren 13eko 29/1998 Legearen, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenaren 116. artikulua



babesean. Intranetean argitaratzeari dagokionez, tratamendu hori AEPDren kontrolaren mende dago.

▪ **Errolda kolektiboko datuak atzitzea (DN19-005)**

Udal batek, 4 urteko adingabe baten guraso batek eskatuta, eta guraso hori ordezkatuta, haren banakako errolda-agiria eskura jarri zuen. Agiri horretan beste gurasoaren, jagoletza daukanaren helbidea ageri zen, eta azken horrek aurkeztu zuen salaketa Agentzian.

Helbidea erroldan nahitaez agertu beharreko datua da (TAOLren 16.2 artikulua), eta adingabeari dagokionez, informazio pertsonala da, beste datu batzuekin batera bera identifikagarri egiten dutena, eta beraz, ez da soilik jagoletza daukan gurasoaren datu pertsonala.

Salatzaileak ez zuen arrazoi objektiborik alegatu Udalak egindako datu-lagapenaren aurka egiteko, eta onartu egin zuen beste gurasoak bazekiela zein helbidetan bizi zen bere ondorengoa.

Salaketa artxibatu zen, Agentziaren ustez udalak datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeria bete zuelako; hain zuzen ere, hala, gurasoak bere seme adingabearen izenean egikaritutako atzipen-eskubidea bete zuen.

Alde salatzaileak artxibatzeke ebazpenaren aurkako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen DBEBren zuzendariaren aurrean, uste baitzuen ebazpenak ez zituela konpondu erreklamazioan planteatutako auzi guztiak. Errekurtso hori ezetsi zen, eta errekurritutako ebazpena berretsi zen, zuzenbidearen arabera egokia izateagatik.

▪ **Datuak atzitzea adostasunik gabe (DN19-008)**

Salaketa artxibatu zen, kasu honetan arrazoi edo zantzu batek ere ez zuelako justifikatzen zehapen-prozedura bat irekitzea.

▪ **Datuak lagatzea (DN19-010)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa, datuak ospitaleen artean eta Osasun Sailarekin adostasunik eta lege-gaikuntzarik gabe lagatzeagatik eta komunikatzeagatik.

Espedientea artxibatu zen, datu guztiak salatzaileak berak laga zituelako, idazkia Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko hainbat erakunde sanitariotara eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzara bidaltzean.

Erreklamatzailerak RR19-007 berraztertze-errekurtsoa egin zuen, eta errekurtsoa ez zen onartu, epez kanpo aurkeztu zelako.



- **Udalaren Alkatetzari zuzentzeko Erregistro Orokorrean aurkeztutako gutuna langileria-arloari igortzea (DN19-012)**

Datu pertsonalen tratamendua Udalaren autoantolaketako ahalen barruan egin zen, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Prozedura Erkidearenaren 16. artikulua eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren, Toki Erakundearen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamendua onartu zuenaren 160. artikulua arabera.

- **Posta elektronikoko helbidea aholkularitza-enpresa bati lagatzea (DN19-016)**

Elkarteek Aldundiaren erakunde-bilbean parte har dezatela sustatzea helburu zuen ekitaldi baterako gonbidapena egiteko posta elektronikoko mezu bat bidali izana salatu zen.

Erabilitako harremanetarako datuak elkarte batenak ziren eta datu irekien katalogotik hartu ziren; beraz, Erregelamendu Orokorrearen aplikazio-eremutik kanpo egongo lirarteke, erakunde pribatu baten datuak izateagatik.

Egindako jarduketetatik ondorioztatzen ziren egitateetan ez zen ikusten Foru Aldundiari datuen babesaren arloko arau-hauste bat egotzi ahal zitzaionik; horregatik, jarduketak artxibatu ziren.

- **Foru Aldundiak elkarte bati datuak lagatzea adostasunik gabe (DN19-020)**

Egindako jarduketetatik ondorioztatzen diren egitateetan ez da ikusten Foru Aldundiari datuen babesaren arloko arau-hauste bat egotzi ahal zitzaionik; horregatik, jarduketak artxibatu ziren.

- **Datuak argitaratzea Ikasgune plataforman (DN19-022)**

Salatu zutenez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2019-2020 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko bigarren hezkuntzako ikastetxe publiko zein itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozeduran interesa dutenen esku jarri zituen eskarietan adierazitako ikastetxe eta ereduaren onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko eta behin betiko zerrendak, «Familien Webgunea» atariaren bitartez; eta argitalpen horretan salatzailearen seme adingabearen informazio pertsonala agertzen zen, besteak beste eta nabarmentzen zuenez, izen-abizenak, jatorriko ikastetxea, eta desgaitasunaren irizpidea eta berorren baremazioa.

Espedienteko agirietatik ondorioztatzen denez, zerrendak interesdunek soilik atzitu ahal zituzten, web atarian egiaztapena egin ostean (posta elektronikoko helbidearen eta pasahitzaren bitartez), baina ikasleen onarpena aurretiaz zein ikastetxetan eskatu zen eta horietan bakarrik.

39/2015 Legearen eta hezkuntzaren arloko araudiaren arabera, ikasleak onartzeko prozedura, salaketaren xede den hori, norgehiagokaren printzipioaren mende



dago. Horrek zera esan nahi du: eskatzaileentzako prozesu osoak berdintasunaren, gardentasunaren eta publizitatearen printzipioen mende egon behar du, eta hainbat kanalen bitartez informaziorako eta publizitaterako mekanismoak ezarri behar dira, bereziki Internet bidez, deialdian hala ezartzen denean; gainera, irispidea interesdunek soilik izan dezatela zaindu behar da baina, nahi izanez gero, agiriak fisikoki atzitzea baimendu ahalko da, soil-soilik balorazioa behar bezala eta aurrez ezarritakoaren arabera egin dela egiaztatzeko, baldin eta beste eskatzaile baten eskubide hobea eztabaidagai bada.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da zerrenda horiek zein epetan egon behar duten argitaratuta. Erregelamendu Orokorrak 5. artikuluan ezartzen ditu tratamenduari buruzko printzipioak eta, horien artean, «kontserbazio-epea mugatzea» delakoa; printzipio hori dela medio, «datu pertsonalak datu pertsonalen tratamenduaren helburuei begira interesdunak identifikatzeko beharrezkoa den baino denbora gehiago ez edukitzeko moduan egongo dira».

Halaber, gauza bat argitu behar da: interesdunek beraiek zerrenda horietatik ateratako hirugarrenen informazioaren tratamendua egin ahal badute onarpen-prozesurako ez diren beste xede batzuetarako eta, bereziki, datuak lagatzen badituzte edo gerora zabaltzen badituzte, orduan hori datuen babesari buruzko araudiaren urraketa izan liteke.

Salaketa artxibatu zen, Agentziaren iritziz Administrazioaren jarduketa bat zetorrelako datuen babesari buruzko araudiarekin.

▪ **Udal espedienteko zenbait datu lagatzea (DN19-025)**

Salatu zuten alderdi politiko batek udal espediente batetik ateratako datu pertsonalak zeuzkan aldizkari bat postontzietan zabaldu zuela, eta datu pertsonal horiek salatzailea buru zen konpentsazio-batzorde bateko kargudunei buruzkoak zirela.

Gerta zitekeen informazio hori hainbat iturritatik jasotzea, eta salatzaileak ez zuen zantzu bat ere ekartzen, informazio hori salatutako Administrazioetik lortu zela ondorioztatu ahal izateko. Beraz, salaketa artxibatu zen.

▪ **Udaltzaingoaren datuak Ertzaintzari lagatzea (DN19-026/DN19-027)**

Salatu zuten udal bateko udaltzaingoak Ertzaintzari laga zizkiola administrazio-prozedura zehatzaile batean eta Ertzaintzako kide bati irekitako diziplina-prozedura baten barruan udal horretako udaltzain baten lekuko-deklarazioan jasotako datu pertsonalak.

Udal horretako udaltzaingoak komunikatutako informazioa Ertzaintzako kide baten aurkako diziplina-prozedura bat irekitzeko bidea eman zuten gertakari batzuk argitzeko ikerketa-jarduketa batzuen barruan zegoen.

Salaketa artxibatu zen, Agentziaren iritziz udaltzaingoaren jarduketa babesten zutelako urriaren 1eko Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak (3.k artikulua), martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak, Segurtasun Indar eta



Kidegoenak (3. artikulua) eta uztailaren 17ko 4/1992 Legeak, Euskal Herriko Poliziari buruzkoak (27. artikulua).

Alde salatzaileak artxibatzeko ebazpenaren aurkako errekurtsua aurkeztu zion DBEBren zuzendariari, uste baitzuen ebazpenak ez zuela zehazten nolako lege-babesa zeukan udaleko udaltzaingoaren jarduketak, Ertzaintzari zehapen-espediente batean alde salatzaileari buruz zegoen informazioa komunikatzean eta, halaber, uste baitzuen ez zegoela loturarik zehapen-espediente horren eta Ertzaintzako funtzionario bati irekitako diziplina-prozeduraren artean. Errekurtsu hori ezetsi zen, eta errekurritutako ebazpena berretsi zen, zuzenbidearen arabera egokia izateagatik.

▪ **Udaltzaingoaren datuak Ertzaintzari lagatzea (DN19-028)**

Salatu zuten udal bateko udaltzaingoak Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari eta Ertzaintzari administrazio-prozedura zehatzaile baten barruko txosten bat komunikatu ziola, zeinean alde salatzailearen datu pertsonalak agertzen baitziren. Txosten hori Segurtasun Sailari Ertzaintzako kide baten aurkako diziplinazko espediente bat irekiarazi zioten ikerketa-jarduketetan sartu zen.

Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari komunikatzearen lege-babesa martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 32.2 artikulua ematen du, administrazio-organo horri baitagokio herritarren segurtasunaren eta segurtasun pribatuaren arloan aurreikusitako zehapen-araubideei buruzko espedienteak hastea eta izapidetzea (apirilaren 11ko 83/2017 Dekretuaren 19.3 c) artikulua).

Eta Ertzaintzari komunikatzearen lege-babesa honako hauek ematen zuten: urriaren 1eko Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak (3.k artikulua), martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak, Segurtasun Indar eta Kidegoenak (3. artikulua) eta uztailaren 17ko 4/1992 Legeak, Euskal Herriko Poliziari buruzkoak (27. artikulua).

Salaketa artxibatu zen, Agentziaren iritziz Administrazioaren jarduketa bat zetorrelako datuen babesari buruzko araudiarekin.

Alde salatzaileak artxibatzeko ebazpenaren aurka berraztertze-errekurtsua aurkeztu zion DBEBren zuzendariari. Errekurtsu hori ezetsi zen, eta errekurritutako ebazpena berretsi zen, zuzenbidearen arabera egokia izateagatik.

▪ **Datuak lagatzea Saileko organo batzuen eta besteen artean (DN19-029/DN19-030/DN19-031/DN19-032)**

Salatu zuten Segurtasun Sailburuordetzako organo batzuek salatzailearen informazio pertsonalaren tratamendua egin zutela.

Espedientean dauden agirietatik ondorioztatzen denez, informazio hori Ertzaintzako kide baten aurkako diziplina-prozedura bat irekitzeko bidea eman zuten gertakari batzuk argitzeko ikerketa-jarduketa batzuen barruan zegoen.

Salaketa artxibatu zen, Agentziaren iritziz Administrazioaren jarduketa bat zetorrelako datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeriarekin.



Alde salatzaileak artxibatzeko ebazpenaren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zion DBEBren zuzendariari. Errekurtso hori ezetsi zen, eta errekurritutako ebazpena berretsi zen, zuzenbidearen arabera egokia izateagatik.

▪ **Datu fiskalak atzitzeko eskubidea urratzea (DN19-035)**

Herritar batek salatu zuen Foru Ogasunean bere datu fiskalak eta bere aitarenak zuzenean eskatu zituela, baina eskari hori Foru Administrazioak ukatu zuela.

Informazio-errekerimendua egin ostean, salatutako Administrazioak alegatu zuen datu fiskalak salatzailearen egoitza fiskalera bidali zirela. DBEBk salatzaileari alegazioa komunikatu zion, eta salatzaileak horri buruz ez zuen ezer ere esan. Salaketa artxibatu zen.

▪ **Bankuko datuak tratatzea adostasunik gabe (DN19-047)**

Honako egitate hauek salatu zituzten: udalak salatzailearen bankuko datuak erabili zituen, zertarako bildu ziren eta beste helburu baterako, interesdunaren adostasunik gabe.

Hala ere, egindako jarduketatik ondorioztatzen denez, egiaztatuta geratzen da salatutako tratamendua udal zerga-ordenantzen arabera egin zela, eta gainera salatzaileak berriazko adostasuna eman zuela agertzen da.

▪ **Datuak argitaratzea Ikasgune plataforman (DN19-055)**

Salatu zenez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2019-2020 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikastetxe publiko zein itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko prozeduran interesa dutenen esku jarri zituen eskarietan adierazitako ikastetxe eta ereduaren onartutako eta baztertutako ikasleen behin-behineko eta behin betiko zerrendak, «Familien Webgunea» atariaren bitartez (<https://ikasgunea.euskadi.eus>); eta argitalpen horretan interesdunen informazio pertsonala agertzen zen, besteak beste izen-abizenak, desgaitasunak (halakorik edukiz gero), familia ugariak diren, harreraren dauden eta NANak, osorik.

Espedienteko agirietatik ondorioztatzen denez, zerrendak interesdunek soilik atzitu ahal zituzten, web atarian egiaztapena egin ostean (posta elektronikoko helbidearen eta pasahitzaren bitartez), baina ikasleen onarpenera aurretiaz zein ikastetxetan eskatu zen eta horietan bakarrik.

39/2015 Legearen eta hezkuntzaren arloko araudiaren arabera, ikasleak onartzeko prozedura, salaketaren xede den hori, norgehiagokaren printzipioaren mendean dago. Horrek zera esan nahi du: eskatzaileentzako prozesu osoak berdintasunaren, gardentasunaren eta publizitatearen printzipioen mendean egon behar du, eta hainbat kanalen bitartez informaziorako eta publizitaterako mekanismoak ezarri behar dira, bereziki Internet bidez, deialdian hala ezartzen denean; gainera, irispidea interesdunek soilik izan dezatela zaindu behar da baina, nahi izanez gero, agiriak fisikoki atzitzea baimendu ahalko da, soil-soilik



balorazioa behar bezala eta aurrez ezarritakoaren arabera egin dela egiaztatzeko, baldin eta beste eskatzaile baten eskubide hobea eztabaidagai bada.

Ez da inon ere agertzen izen-abizenak argitaratu direnik nortasun-agiri nazionalaren, pasaportearen edo agiri baliokide baten zenbakiarekin edo atzerritarraren nortasun-zenbakiarekin batera, hori debekatzen baita 3/2018 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian.

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da zerrenda horiek zein epetan egon behar duten argitaratuta. Erregelamendu Orokorrak 5. artikuluan ezartzen ditu tratamenduari buruzko printzipioak eta, horien artean, «kontserbazio-epea mugatzea» delakoa; printzipio hori dela medio, «datu pertsonalak datu pertsonalen tratamenduaren helburuei begira interesdunak identifikatzeko beharrezkoa den baino denbora gehiago ez edukitzeko moduan egongo dira».

Halaber, gauza bat argitu behar da: interesdunek beraiek zerrenda horietatik ateratako hirugarrenen informazioaren tratamendua egin ahal badute onarpen-prozesurako ez diren beste xede batzuetarako eta, bereziki, datuak lagatzen badituzte edo gerora zabaltzen badituzte, orduan hori datuen babesari buruzko araudiaren urraketa izan liteke.

Salaketa artxibatu zen, Agentziaren iritziz Administrazioaren jarduketa bat zetorrelako datuen babesari buruzko araudiarekin.

▪ Katastroko zenbait datu lagatzea adostasunik gabe (DN19-056)

Salatu zuten udal batek salatzailearen jabetzako bi partzelaren katastro-ziurtagiria eta partzela-zedula aurkeztu zituela salatzaileak udalaren aurka sustatutako epaiketa arrunt batean, partzela horien mugakide den bide bati buruzko deklarazio-akzioan. Ziurtagiri hori udalak foru-aldundiari eskatu zion, eta judizio horretan aurkeztu zuen, demandari emandako erantzunarekin batera. Eta, halaber, salatu zuten udal horrek aurkeztu zuela katastro-ziurtagiri deskriptibo eta grafikoaren kopia bat, bidea ofizioz lehengoratzeko administrazio-espeditente bati erantsita zegoena, salatzailearen partzelen eta bidearen mugakide zen partzela baten jabeen abokatuak eskaria egin ostean.

Udalak egindako bi tratamendu horien oinarri juridikoa Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1 c) eta e) artikuluetan jasotzen da.

Lehenengo tratamenduak honako oinarri hauek ditu: Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 68.1 eta 5. artikulua; 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onesten duena (45. eta 73. artikulua) eta Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua (109.1 artikulua).

Udalak egindako bigarren tratamenduak, berriz, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenean xedatuta dagoena du oinarri (53.1 a) eta 4.1 artikulua).



Salaketa artxibatu zen; izan ere, Agentziaren iritziz, udalak, datu pertsonalen tratamenduak adierazi den moduan egitean, ez zuen urratu datuen babesaren arloan indarrean dagoen legeria.

- **Datu pertsonalak komunikatzea babes ofizialeko etxebizitza bat besterentzeko prozeduran (DN19-057)**

Salaketan azaltzen diren gertakariak honako hauek dira: Eusko Jaurlaritzako Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak, babes ofizialeko etxebizitza baten salerosketa-kontratua ikusonesteko eskari baten ondorioz, saltzaileari ikusonespena ukatzeko ebazpena jakinaraztean, eroslearen datu pertsonal batzuk komunikatu zizkion, zehazki, erosleak partaidetza daukan pisu baten helbidea, partaidetza horren ehunekoa eta partaidetza horren balio ekonomikoa.

DBEBk bere ebazpenean deklaratu zuenez, ikusonesteko eskaria, salaketaren xede den datu-tratamendua sorrarazi zuen hori, ekainaren 18ko 3/2015 Legeak, Etxebizitzarenak ezarritako nahitaezko izapidea da. Halaber, deklaratu duenez, etxebizitzaren eskualdatzaileak eskatu behar du, eta eskariarekin batera babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidearen egiaztatgiak aurkeztu behar dira, horien artean daudela etxebizitzaren beharrianari buruzkoak.

Agiri horiek guztiak, eskariarekin batera, eskualdatzaileak aurkeztu behar zituen ikusonespena lortzeko; beraz, Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzak, ikusonespena ukatzeko ebazpena interesdunei jakinaraztean, eskualdatzaileari ez zion azaldu hark ez zekien informaziorik, hari baitagokio informazio hori Administrazioari aurkeztea.

4.3. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ARAU-HAUSTE PROZEDURAK

Halako prozedurak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoei irekitzen zaizkie, uste bada datu pertsonalak babesteari buruzko esparruan arau-haustea izan daitekeen portaeraren bat izan dutela. Bukatzeko bi modu daude: artxibatzea ala, hala badagokio, ohartarazpen-zehapena ezartzea eta neurri zuzentzaileak hartzeko eskatzea.

2019an 33 arau-hauste prozedura berri hasi genituen eta 27 ebatzi genituen. Emaita honako hau izan zen: hamabost arau-hauste oso astun, sei astun eta lau arau-hauste arin deklaratu ziren.

- **Sekretua betebeharra urratzea (PI18-012)**

Prozesu zibil batean —orduan salatzailea zena alde bat izan zen— kontrako aldearen letraduak aipatu zuen salatzaileak Zestoako Udalaren aurka aurkeztutako kexa baten egoeraren eta nondik norakoaren berri eman zuela.

Zestoako Udalari arau-hauste bat deklaratu zitzaion, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 10. artikulua ezarritako sekretu gorde beharra urratzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.2 e) artikulua xedatzen duenez, arau-hauste arina zen.



▪ **Ezgaitasun izaera argitaratzea hautaketa-prozesu batean (PI18-013)**

Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak hautaketa-prozesu baten deialdia egin zuen, eta Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean hautatutako pertsonen behin-behineko zerrenda bi argitaratzeko agindua eman zuen (izen-abizenak, destinoko lanpostua eta lanpostuaren kodea adierazita), eta bereizketa egin zuen sarrera libreko sistemaren txandatik hautatutako pertsonen artean eta ezinduen txandatik hautatutako pertsonaren -kasu honetan, salatzaileren- artean.

Argitaratutako datu pertsonalen artean nabarmentzekoak dira bereziki babestutako datuak, adibidez osasunari buruzkoak (Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 7.3 artikulua). Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa garatzeko Erregelamenduak dioenez, zehazki esanda, pertsonen osasunarekin zerikusia duten datutzat hartuko dira zenbaterainoko ezintasuna dagoen adierazten duten datuak (5.1.g artikulua). Pertsonen osasunarekin lotutako datuek babes-araubide indartuagoa dute. Izan ere, bakar-bakarrik eskatu eta tratatu ahal izango dira lege batek, interes orokorreko arrazoiak direla medio, hala xedatzen badu edo ukituak ageriko adostasuna adierazten badu (Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 7.3 artikulua).

Argitalpen horrek urratu egiten ditu hautaketa-prozesuaren deialdiaren Oinarri Orokorrak, 2271/2004 Errege Dekretua (3.3 artikulua, hirugarren tartekia) eta datu pertsonalen babeserako araudia, adostasunik eta lege-babesik gabe egin delako.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11. eta 7.3 artikuluetan xedatutakoaren arau-hauste bat deklaratu genuen. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4 c) artikulua arabera, arau-haustea oso astuna da.

▪ **Datu konfidentzialak dauzkan gizarte-txostena Epaitegiari lagatzea (PI18-014)**

Laudioko Udalaren aurkako salaketa aurkeztu zen, Epaitegi bati datu konfidentzialak zeuzkan gizarte-txostena lagatzeagatik, organo judizial horrek ez baitzuen halakorik eskatu.

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 4. artikulua xedatzen duena urratu zela deklaratu genuen. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoaren 22.3 c) artikulua arabera arau-hauste astuna da. Laudioko Udalari errekerimendua egin zitzaion, barne antolaketako neurriak har zitzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik.



- **Datu pertsonalak dauzkan epai bat argitaratzea web orri batean (PI18-015)**

Gasteizko Udalaren aurkako salaketa aurkeztu zen, web orrian datu pertsonalak zeuzkan epai bat adostasunik eta lege-gaikuntzarik gabe argitaratzeagatik.

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoaren 10. artikulua urratu zela deklaratu genuen. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoaren 22.2 e) artikulua araberako arau-hauste arina da.

Kasu horretan, Udalari ez zitzaion errekerimendurik egin neurri zuzentzaileak har zitzan, egindako arau-haustea unean uneko hutsegite batengatik gertatu arren hutsegite hori zuzendu egin zelako.

- **Lanpostu bateko izangai guztiei datu pertsonalak agerian dauzkan errekurtsioa bidaltzea (PI18-016)**

Salatu zenez, Bermeoko Udalak enplegu-poltsa bateko izangai guztiei errekurtsioa baten datu pertsonalak agerian zeuzkan errekurtsioa igorri zien. Hutsegitearen berri izan bezain laster horren berri eman zien gainerako izangaiei, beste jakinarazpen bat igorri zion ukitutako pertsonari, eta barkamena eskatu zion.

Gora jotzeko errekurtsioa alegazioen berri ematean errekurtsioaren datu pertsonalak sartzeko gehiegizkoa da, eta beraz, neurrigabea datuen kalitatearen aldetik; izan ere, Datuak Babesteko Lege Organikoaren 4.1 artikulua eskatzen duenez, ezinbestekoa den gutxienezko informazioa eman behar da, hau da, kasu bakoitzean beharrezkoak diren datuak soilik komunikatu beharko dira, komunikatzeko justifikazioa eta gaitasuna ematen duen xedea kontuan hartuta.

Beraz, Udalak salatzailearen datuen tratamendua eta komunikazioa egin izana bat zetorren datuen kalitatearen printzipioarekin, eta egiaztatuta geratu zen abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoaren 4.1 artikulua urratu zela.

Ebatzi genuen Bermeoko Udalak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoaren 4. artikulua urratu zuela; beraz, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoaren 22.3 c) artikulua astuntzat jotzen duen arau-haustea deklaratu genuen.

Udalak Agentziari jakinarazi zizkion hartutako neurri zuzentzaileak.

- **Poliziaren komisaria bateko iragarki-oholean zenbait datu pertsonal argitaratzea (PI18-017)**

Getxoko Udaltzaingoaren komisariako iragarki-oholean aurreko urteko gorabeheren, akten eta salaketen zerrenda jarri zen, Poliziako agente bakoitzaren zenbaki profesionalarekin batera.



Honako hau ebatzi genuen: Getxoko Udalak, iragarki-oholean gauza horiek jendaurrean jarritz, lanpostuaren arabera horretarako legitimitatea duten pertsonak soilik tratatu behar duten informazioa jarri zuen agerian; hala, hirugarrenen aurrean agerian jarri zuen, horretarako beharrezanik gabe, eta beraz, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoaren 10. artikulua urratu zuen. Horrenbestez, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoaren 22.2 e) artikulua arintzat jotzen duen arau-haustea deklaratu genuen.

▪ **Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren ebazpena ez betetzea (PI18-018)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion Agentziaren ebazpen irmo eta onartua ez betetzeagatik. Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 22.4.f) artikulua arabera arau-hauste oso astuna da. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari berriro ere errekerimendua egin zitzaion, paziente edo erabiltzaileen dokumentazio klinikoan (sail arteko agirietan, errutinako analisietan, erradiologiako bolanteetan...) laguntza-prozesurako behar-beharrezkoa ez den aurrekaririk ez jartzeko ezinbesteko neurri guztiak har zitzaion.

Osakidetzak Agentziari jakinarazi zizkion hartutako neurri zuzentzaileak.

▪ **Informatzeko betebeharra urratzea (PI18-019)**

Udaltzaingoko agente batek salatu zuenez, agente bakoitzari esleitzen zaion emisora eramangarriaren GPS posizionamenduko datuak diziplinazko espediente bat irekitzeko eta justifikatzeko erabili ahal zirela ez zieten esan, eta beraiek ez zuten adostasunik eman xede horretarako.

Geroago, prozedura izapidetzen ari zen bitartean, salatzaileak azaldu zuen ez zela nahitaezkoa adostasuna ematea tratamendu horretarako, baina informazio zehatza eta zalantzarik gabea eman behar zitzaizela aurretiaz legeak ezartzen dituen alderdiei buruz. Kasu horretan, baldintza hori ez zen bete.

Prozedura izapidetzean egiaztatu zenez, informatzeko betebeharra bete egin zen, DBLOren 5. artikuluko baldintzak betetzen zituzten bi informazio-oharren bitartez; beraz, hasitako arau-hauste prozedura artxibatu zen.

Hala ere, Bilboko Udalari gogorarazi zitzaion Datuak Babesteko Europako Erregelamendu berria zorrotzagoa dela gardentasunaren arloan, formari nahiz edukiari dagokienez; beraz, datu pertsonalen tratamenduaren arduradunek informatzeko betebeharrak egokitu behar dituzte datu pertsonalen babesaren arloko gaur egungo araudi-esparruak ezartzen dituen baldintza berrietara.

▪ **Ezkutuko kopiarik gabe mezu elektronikoak bidaltzea era masiboan (PI19-001)**

Barrikako Udalari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, posta elektronikoko mezuak ezkutuko kopiarik gabe era masiboan bidaltzeagatik.



Jokabide horrek Erregelamendu Orokorraren 5.1 f) artikuluan jasota dagoen konfidentzialtasunaren printzipioa urratzen du, eta lege-arau beraren 83.5 a) artikuluan xedatutako arau-hauste astuna da.

▪ **Iragarki-oholean epaia argitaratzea (PI19-002)**

Getxoko Udalak langile baten lan-arloko auzibide bati buruzko epaia argitaratu zuen Udaltzaingoaren iragarki-oholean. Udalari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 5.1 f) artikuluan jasota dagoen konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik, arau-hauste hori lege-arau beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita baitago.

Udalak ez zituen jakinarazi hartutako neurriak.

▪ **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (PI19-003)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren aurkako salaketa aurkeztu zuten, osasun arloko profesional batek salatzailearen historia klinikoa bidegabe atzitu zuelako hainbat aldiz, adostasunik eta lege-gaikuntzarik gabe.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolaketa-arloko neurriak har zitzaizkion, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Ente publikoak Agentziari jakinarazi zizkion hartutako neurriak.

▪ **Salatzailearen datuak salatuari lagatzea (PI19-005)**

Plentziako Udalak espediente zehatzaile batean salatutako pertsona bati prozedura hasteko ebazpena jakinarazi zion; ebazpen horretan izen eta abizenekin identifikatzen zen tokiko korporazio hartan berari salaketa jarri zion pertsona.

Udalari ohartarazpena egin zitzaion, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 5.1. f) artikuluan jasota dagoen osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Jokabide hori lege-testu beraren 83.5 a) artikuluan xedatuta dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Legearen 72.1 i) artikulua arabera arau-hauste oso astuna da.

Dena dela, Agentziak onartu zuen du jokabidea ez zela hain gaitzesgarria, Plentziako Udalak sortutako egoera zuzentzeko neurriak hartu zituelako: egon daitezkeen salaketa partikularrei buruz datu pertsonalik ez ematea eta sarrerako erregistroaren zenbakia eta data soilik azaltzea.



▪ **Zehapen-espediente bati buruzko datuak argitaratzea (PI19-006)**

Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiaren iragarki-oholean Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzaren ebazpen bat argitaratu zen, zeinaren bidez kategoriatuak jakin bat zeukaten Ertzaintzako karrerako funtzionario batzuk izendatu ziren. Modu hartan argitaratutako ebazpenean diziplina-prozedura irekita zeukaten bi funtzionario agertzen ziren identifikatuta, euren zenbaki profesionalekin.

Sailburuordetzari ohartarazpena egin zitzaion, 3/2018 Legearen 27. artikulua urratzeagatik. Jokabide hori Erregelamendu Orokorren 83.5 d) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da eta 3/2018 Legearen 72.1 g) artikulua arau-haustea oso astuntzat jotzen du.

▪ **Datu gehiegi eta garrantzirik gabeak larrialdietako txosten mediko batean (PI19-007)**

Salatu zuten Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, salatzaileari emandako larrialdi-zerbitzuaren alta-txosten batean, tratamendua jaso zuen gertakariari buruz salatzailearen osasunari buruzko datu asko eta garrantzirik gabeak jaso zituela, eta osasun-agiria eginarazi zuen patologiarekin edo egoerarekin zerikusirik ez zuen datu gehiegi agerrarazi zirela.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari ohartarazpena egin zitzaion, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduen 5 1 c) artikulua urratzeagatik, jokabide hori lege-testu beraren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako eta 3/2018 Legearen 72.1 a) artikuluan arau-hauste oso astuntzat jotzen delako; halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolaketa-arloko neurriak har zitzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak ez zizkion DBEBri jakinarazi hartutako neurri zuzentzaileak.

▪ **Datuak argitaratzea Haurreskola batean (PI19-008)**

Balmasedako Haurreskolaren iragarki-oholean, bertan matrikulatutako 0 eta 2 urte bitarteko haurren izen-abizenak argitaratu ziren, eta matrikulazio-eskariak barematzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioak argitaratu ziren, baita bakoitzarengatik ordaindu beharreko kuota ere.

Ikasleak onartzeari eta eskolatzeari buruzko norgehiagokako prozedura zen eta prozedura horretan salatutako Administrazioak gehiegizko informazioa argitaratu zuen, hain zuzen ere prozedura arautzen duen araudiak eskatzen ez duen informazioa.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak deklaratu zuenez, Haurreskolak Partzuergoak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1. c) artikuluan aldarrikatzen den datuen minimizazioaren printzipioa urratu zuen. Jokabide hori lege-testu horren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat izan daiteke, eta Datu Pertsonalak



Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 72.1 a) artikulua araberako arau-haustea oso astuntzat jo daiteke.

Partzuergoak Agentziari jakinarazi zizkion hartutako neurri zuzentzaileak.

- **Administrazioarekiko auzien epaitegi bati gehiegizko informazioa igortzea (PI19-009)**

Herritar baten eta Donostiako Udalaren artean trafikoko zehapen batengatik egindako administrazioarekiko auzi-prozedura batean, Udalak Epaitegiari dokumentazioa igorri zion. Dokumentazio horretan prozesuarekin zerikusirik ez zuten hirugarren pertsonen buruzko informazioa agertzen zen, zehazki udal korporazioak irekitako beste zehapen-prozedura batzuetan zeuden pertsonen zerrenda bat, baina pertsona horiek ez zuten zerikusirik azaldutako auziarekin. Zerrenda horretan beste zehapen-prozedura batzuetan zeuden pertsonen izen-abizenak, NANA, euren ibilgailuen matrikulak, zehapen-espeditentaren zenbakia, prozedurak hasi ziren data eta zehapenen zenbatekoa agertzen ziren.

Agentziak Donostiako Udalarari ohartarazpena egin zion, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1. c) artikuluan aldarrikatzen den datuen minimizazioaren printzipioa urratzeagatik. Jokabide hori lege-testu horren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat izan daiteke, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 72.1 a) artikulua araberako arau-haustea oso astuntzat jo daiteke. Agentziak ez zuen azaldu zein neurri zuzentzaile hartu behar ziren, neurri horiek Udalak lehenago ezarri zituelako.

Donostiako Udalak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Agentziaren ebazpen zehatzailearen aurka.

- **Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian datu pertsonalak dauzkan iragarki bat argitaratzea (PI19-010)**

Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarki bat argitaratu zuen, zeinean Gasteizko administrazio-azien epaitegi batean bideratutako prozedura laburtu bateko interesdunak epatu baitziren. Iragarkian prozedura horretako demandatzaileen izen-abizenak agertu ziren, horien artean Datuak Babesteko Euskal Bulegoan salaketa aurkeztu zuen pertsonaren izen-abizenak.

Epatze batean salatzailearen nortasuna argitaratzea beharrezkoa ez denez, deklaratu zen Polizia eta Larrialdien Euskal Akademiak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1. c) artikuluan aldarrikatzen den datuen minimizazioaren printzipioa urratzen zuela. Jokabide hori lege-testu horren 83.5.a) artikuluan aurreikusitako arau-hauste bat izan daiteke, eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko Lege Organikoaren 72.1 a) artikulua araberako arau-haustea oso astuntzat jo daiteke.



- **DBEBri laguntzeko betebeharra ez betetzea (PI19-011)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 31. artikulua urratzeagatik, arau-hauste astuna delako, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 73 o) artikulua arabera; halaber, errekerimendua egin zitzaion, kontrol-agintaritza honi laguntzeko beharrezko neurriak har zitzaizkion.

- **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (PI19-012)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua salatu zuten, Euskal Osasun Zerbitzuko hainbat langilek salatzailearen historia klinikoa hainbat aldiz eskuratu zutelako, nahiz eta aldi guztietan laguntza-arloko edo administrazio-arloko jarduketarik ez egon justifikazio gisa.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzeagatik, jokabide hori lege-testu horren 83.5 a) artikuluan ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolaketa-arloko neurriak har zitzaizkion, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak Agentziari jakinarazi zizkion hartutako neurriak.

- **Datuak lagatzea (PI19-013)**

Arratzua-Ubarrundiako Udalak, jarduketa klandestino bat legeztatzeko administrazio-espeditentea hasteari buruzko ebazpena jakinaraztean, salatzailearen nortasuna agerian utzi zion salatuari, haren adostasunik gabe.

Udalari ohartarazpena egin zitzaion Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 5.1.f) artikuluan eta 3/2018 Legearen 5.1 artikuluan jasotako osotasunaren eta konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Erregelamendu Orokorren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1. i) artikulua arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Udalak ez zituen jakinarazi hartutako neurriak.

- **Posta elektronikoko mezua bidaltzea ikasle baten osasun-datu batzuekin (PI19-014)**

Institutu bateko ikasle den adingabe baten gurasoek salatu zuten, euren semearen tutoreak ikasgelako irakasleei eta ikasleei posta elektronikoko mezu batzuk bidali zizkien, eta mezu horietan haien semearen osasun-datuak agerian zeuden.

Hasitako arau-hauste prozeduran egiaztatuta geratu zenez, ikasgelako ikasle guztiek euren gelakide baten datu medikoak jaso zituzten, taldeko tutoreak



bidalitako posta elektronikoko mezu baten bidez. Datu horiek babes berezikoak dira, **horien tratamendu desegokia eginez gero ukitutako pertsonaren oinarritzko eskubide eta askatasunetarako arrisku handiak sor litezkeelako.**

Hezkuntza-administrazioak uneoro gertakariak onartu zituen, eta bere buruaren defentsan alegatu zuen mezuak hutsegite batengatik bidali zirela, irakasleak berak geroago hutsegitea onartu zuela ikaslearen eta gurasoen aurrean, eta ikasleari eta gurasoei barkamena eskatu ziela egindako hutsarengatik. Halaber, Sailak pertsonen datu pertsonalak babestuak izateko oinarritzko eskubidea errespetatzeko neurriak hartzen dituela alegatu zuen.

Dena dela, alegazio horiek ez zuten erantzukizunetik salbuesten. Halako datuak tratatzean arretaz eta arduraz ez jokatzeari nahikoa da erantzukizuna eskatzeko, jurisprudentzia-doktrinaren arabera, babestutako ondasun juridikoaren balio berezia kontuan hartuta. Hain zuzen ere, nahitakotasunik egon ezenez, instrukzio-egilearen proposamenean eta ebazpenean ez zen proposatu diziplinazko bidetik jotzea, nahiz eta legeak horretarako aukera ematen duen, horretarako aurrebaldintzak gertatzen direnean (otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzkoaren 24.2 artikulua).

Geroago egindako jarduketek eta hezkuntzaren eremuan oinarritzko eskubidearen errespetua bermatzeko hartutako neurriek ere ez zuten Administrazioa erantzukizunetik salbuesten. Jarduketa eta neurri horiek kontuan har zitezkeen isuna jartzea erabakitzean eta isunaren zenbatekoa zehaztean (3/2018 Legearen 83. artikulua), baina hori ez zitzaion aplikatzen kasu honi, Administrazio Publikoek arlo honetan egindako arau-hausteak zehazteko ohartarazpenak egiten baitira, baita neurri zuzentzaileak hartu ere, 3/2018 Legearen 77.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horregatik guztiarengatik, Hezkuntza Administrazioari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorraren 5.1.a) artikuluan jasota dagoen zilegitasunaren printzipioa urratzeagatik. Izan ere, jokabide hori Erregelamendu Orokorraren 83.5.a) artikuluan ezarritako arau-hauste bat da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1.e) artikulua arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

▪ **Auzi batean datu gehiegi ematea (PI19-015)**

Hautaketa-prozedura batean egindako jarduketa jakin batzuei buruz salatzaileak Bizkaiko Foru Aldundian egindako ikustaldi batean, Foru Administrazioak erreklamatzaileraren adina egiaztatzeko agiri-froga aurkeztu zuen; alegia, salatzaileak Administrazioari lehenago entregatutako Erregistro Zibilaren ziurtagiri bat, zeinean salatzailearen nahiz auziarekin zerikusirik ez zeukaten hirugarren pertsonen informazio pertsonal ugaria jasotzen baitzen. Hala, Erregelamendu Orokorraren 5. artikuluan jasotako printzipioa, datuak minimizatzearena, urratu egin zen. Arau-hauste hori oso astuntzat jotzen da Erregelamendu Orokorraren 83.1a) artikuluan, eta ohartarazpena eginez eta neurri zuzentzaileak hartuz zehatzen da.



- **Abokatuen Elkargoak datuak lagatzea adostasunik gabe (PI19-016)**

Salaketa artxibatu zen, espedienteko agirietatik ez zelako ondorioztatu prozedura judizialean erabilitako datuak, erreklamatzailleak Elkargoan daukan egoera azaltzen duten horiek, Bizkaiko Abokatuen Elkargoak eman zituenik.

- **Datu pertsonalak argitaratzea hautaketa-prozedura batean (PI19-017)**

Oiartzungo Udalak irekian argitaratu zituen lan eskaintza publiko bateko lehenengo eta bigarren ariketetako emaitzen aurka aurkeztutako erreklamazioen gaineko ebazpenen aktak, erreklamatzailleen datu pertsonalekin.

Oiartzungo Udalari ohartarazpena egin zitzaion Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko 5.1. f) artikuluan jasotako konfidentzialtasunaren printzipioa urratzeagatik. Jokabide hori Erregelamendu Orokorren 83.5 a) artikuluan jasota dagoen arau-haustea da, eta 3/2018 Lege Organikoaren 72.1 i) artikulua arau-hauste oso astuntzat jotzen du.

Udalak Agentziari jakinarazi zizkion hartutako neurri zuzentzaileak.

- **Irispidea izateko eskubidea egikaritzeko oztopoak jartzea eta helburuaren printzipioa urratzea (PI19-019)**

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua salatu zuten, erreklamaturako informazio pertsonalerako irispidea izateko eskubidea ukatu zietelako, eta datuak biltzearen helburua ez zetorrelako bat tratamenduaren helburuarekin.

Irispidea izateko eskubidea Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 8. artikuluko 2. apartatuan berariaz aipatzen direnetako bat da. Gutunak dioenez, pertsona orok du berari dagokionez jasota dauden datuetara iristeko eskubidea.

Oinarrizko eskubidea da, eta hala da tratatzen diren datu pertsonalen titular den pertsona fisikoak aukera izan behar duelako jakiteko ea erakunde batek, publikoa edo pribatua izan, bere datu pertsonalak tratamenduaren arduradun gisa tratatzen dituen eta, hala, kontrolatu ahal izateko datuak behar bezala tratatzen direla, bai eta, hala badagokio, beste eskubide batzuk egikaritzeko.

Prozedura honetan egiaztatuta geratu zen Kontsumobidek salatzaileari ukatu ziola berariaz erreklamaturako informazio pertsonala irispidean izateko eskubidea eta, hala, irispidea izateko eskubidea eragotzi edo oztopatu zuela, eta defentsarako eskubidea murriztu egin zuela.

Gainera, egiaztatuta geratu zen Kontsumobidek urratu egin zuela datuen babesaren arloko oinarrizko printzipio bat, helburua mugatzearen printzipioa, alegia, Erregelamendu Orokorren 5.1b) artikuluan araututa dagoena, interesdunaren informazio pertsonala datu-bilketaren arrazoian zegoen helburua ez zen beste baterako erabili zelako, tratamendu horri legitimitatea emateko oinarri juridikorik gabe.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Erregelamendu Orokorren 83.5 artikuluko a) eta b)



letretan jasota dauden eta 3/2018 Legearen 72.1 artikuluko d) eta k) letretan oso astuntzat jotzen diren bi arau-hausterengatik.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak Agentziari ez zizkion azaldu hartutako neurri zuzentzaileak, zeinen bidez bermatzen baitira datuen babeserako araudiak pertsonen onartzen dizkien eskubideak, baita euren eginkizunak egikaritzean datu pertsonalen tratamendurako oinarritzko printzipioen errespetua ere.

▪ **Historia klinikoa bidegabe atzitzea (PI19-020)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua salatu zuten, Euskal Osasun Zerbitzuko hainbat langilek salatzailearen historia klinikoa hainbat aldiz eskuratu zutelako, nahiz eta aldi batean ere laguntza-arloko edo administrazio-arloko jarduketarik ez egon justifikazio gisa.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 5.1 f) artikulua urratzegatik, jokabide hori lege-testu horren beraren 83.5 a) ezarrita dagoelako; halaber, errekerimendua egin zitzaion, barneko antolaketa-arloko neurriak har zitzan, berriro ez gertatzeko prozedura horretan aipatutakoa bezalako egoerarik, ebazpenaren oinarri juridikoetan zehazten zenaren arabera.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak Agentziari jakinarazi zizkion hartutako neurri zuzentzaileak.

▪ **DBEBri laguntzeko betebeharra ez betetzea (PI19-025)**

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari zehapena ezarri zitzaion ohartarazpen bidez, Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 31. artikulua urratzeagatik, arau-hauste astuna delako, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoaren 73 o) artikulua arabera; halaber, errekerimendua egin zitzaion, kontrol-agintaritza honi laguntzeko beharrezko neurriak har zitzan.



5. DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIEN ERREGISTROA

2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrak, Datuak Babestekoak 37.1 artikuluan xedatzen duenez, tratamendua egiten duena **agintaritza edo erakunde publiko bat** bada, pertsona bat Datuak Babesteko Ordezkarari (DPD-DBO) izendatu behar da. Halaber, 37.7 artikuluan ezarrita dagoenez, datuak babesteko ordezkararen harremanetarako datuak kontrol-agintaritzari komunikatu behar zaizkio.

Erregelamendu Orokorrak xedatzen du datuak babesteko ordezkaria izendatu behar dela tratamendu-arduradunentzat zein tratamendu-eragileentzat; hala ere, DBEBz ari garela, gaur egun Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legeak ezarritako eskumen-esparrua hartu behar da aintzat, eta bigarren artikuluan zerrendatutako «agintaritza eta erakunde publikoak» dira behartuta dauden subjektuak.

2019ko amaieran datuak babesteko ordezkarien harremanetarako datuak komunikatzera behartuta zeuden entitate eta erakunde publikoen kopuruari buruzko laburpena dago honako taula honetan:

ADMINISTRAZIO MOTA	BEHARTUTAKO ENTITATEAK	ZENBAT DPD-DBO IZENDATUTA	DPD-DBO %
1-Eusko Jaurlaritza	19	19	% 100,0
2-Erakunde autonomikoak	8	5	% 62,5
3-Foru erakundeak	15	8	% 53,3
4-Udalak	332	127	% 38,3
5-Udalaz gaidiko erakundeak	31	15	% 48,4
9-Beste erakunde batzuk	101	72	% 71,3
Guztira	506	246	% 48,6

Komunikatutako ordezkariek, guztira, 2018an 185 ziren; 2019an, aldiz 246. Beraz, % 33,0ko gorakada egon da. Behartutako entitateen kopuruak ere gora egin du (457tik 506ra), iraganean tratamendurik jakinarazi ez zuten entitate eta erakunde publikoak identifikatu direlako. Horren adibide dira hainbat kirol federaziotako tratamendu-arduradun batzuk.

Orotara, behartutako entitateen kopuruak gora egin du, 2018ko % 40,5etik 2019ko % 48,6ra.

5.1. TOKI ADMINISTRAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioa 251 udalerri osatzen dute. Horietatik 113k izendatu dute jada datuak babesteko ordezkaria, gutxienez udal administrazioa bera gainbegiratzeko.

Udal administrazio bakoitzean izendatutako datuak babesteko ordezkariek (administrazio bakoitzari lotutako edo haren mendeko organismoak zenbatu gabe) honela banatzen dira lurralde historikoaren arabera:



LH	UDALAK	DPD-DBOs	%
Araba	51	12	% 23,5
Bizkaia	112	58	% 51,8
Gipuzkoa	88	43	% 48,9
Guztira	251	113	% 45,0

Udalerrien tamaina kontuan hartuta, ikusten da 50.000 biztanletik gorako udalerri guztiek (Bilbok, Gasteizek, Donostiak, Barakaldok, Getxok eta Irunek) datuak babesteko ordezkaria izendatu dutela, eta 20.000 biztanletik gorako erdiak baino gehiagok (% 61,5) ere bai. Honako taula honetan jaso da udalen eta izendatutako ordezkarien kopuruen banaketa, populazio-geruzen arabera:

BIZTANLEAK	UDALAK	DPD-DBO	%
< 500	62	31	% 50,0
500 - 999	39	17	% 43,6
1.000 - 4.999	79	35	% 44,3
5.000 - 9.999	29	10	% 34,5
10.000 - 19.999	23	6	% 26,1
20.000 - 49.999	13	8	% 61,5
50.000 - 99.999	2	2	% 100,0
> 100.000	4	4	% 100,0
Guztira	251	113	% 45,0

Esan behar da 5.000 biztanle baino gutxiagoko toki entitateen multzo honek zailtasun objektibo batzuk dituela datuak babesteko ordezkaria izendatzeko, hain zuen ere figura horrek dituen berezitasunengatik: batetik, lanbide-trebetasuna, eta, bestetik, datuak babesteko ordezkariaren eginkizunak burutzen dituzten pertsonen ezaugarriak independentzia eta interes gatazkarik eza izan behar direla.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren gomendioa da banan banako irtenbideak topatzea datuak babesteko ordezkaria izateko erraztasunak bilatze aldera, adibidez honako hauek:

- Foru aldundiak ematea datuak babesteko ordezkariaren zerbitzuak, udal txiki horietako beste hainbeste zerbitzu batzuekin egiten duten bezala, adibidez, administrazio elektronikoarekin; hala xedatzen duelako apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenaren 36. artikulua.
- Udalez gaindiko datuak babesteko ordezkariak eduki daitezke, udal txiki batzuei modu mankomunatuan edo partzuergo eran zerbitzua emateko, lehendik dauden udalez gaindiko entitateak baliatuta.
- Kanpoko zerbitzuen kontratuak baliatzea halako zerbitzuak emateko.



5.2. BESTE ORGANISMO BATZUK - KIROL FEDERAZIOAK

Kirol federazioak izaera pribatuko eta lege-konfigurazioko elkarteak dira; hala ere, ordezkaritza bidez, administrazio-izaerako eginkizun publikoak ere betetzen dituzte, eta kasu honetan administrazio publikoaren laguntzaile gisa arituko dira. Ikuspuntu horretatik, zuzenbide publikoko korporazioen antzekoak dira edo haiekin parekaturik daude.

Bestalde, 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoak, 34.1.o) artikuluan beren-beregi ezartzen du kirol federazioek datuak babesteko ordezkaria nahitaez izendatu behar dutela, adingabeen datuak tratatzen badituzte.

2019an 43 kirol federaziok jakinarazi zuten datuak babesteko ordezkaria izendatu zutela.

5.3. TRATAMENDU-ARDURADUNEK DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREKIN DUTEN LOTURA

Hona izendatutako datuak babesteko ordezkari kopurua, tratamendu-arduradunarekiko enplegu-arloko loturaren arabera (barnekoa edo kanpoko) eta zein administrazio mota den kontuan hartuta:

ADMINISTRAZIO MOTA	DPD-DBO	Barnekoa	Kanpoko	Int. %
1-Eusko Jaurlaritza	19	18	1	% 94,7
2-Erakunde autonomikoak	5	4	1	% 80,0
3-Foru erakundeak	8	7	1	% 87,5
4-Udalak	127	46	81	% 36,2
5-Udalaz gaindiko erakundeak	15	4	11	% 26,7
7-Beste erakunde batzuk	72	3	69	% 4,2
Guztira	246	82	164	% 33,3

Administrazio publikoen herenek soilik erabaki dute barneko datuak babesteko ordezkaria izendatzea, batzuk plantillakoa eta beste batzuk beste entitate publiko batekoa. Gainera, joera beheranzkoa da; izan ere, 2018an, behartutako entitateen erdiek gutxi gorabehera izendatu zuten barneko datuak babesteko ordezkaria. 2019an egindako izendapen berri gehienak barneko datuak babesteko ordezkarienak izan dira, baina horrez gain, barneko datuak babesteko ordezkarien kopuru absolutuak behera egin du; 2018an 92 ziren eta 2019an, aldiz, 82.

Barneko datuak babesteko ordezkaria gehienetan izendatu da Eusko Jaurlaritzaren, erakunde autonomikoen eta foru erakundeen kasuan; dena dela, joera hori are nabarmenagoa da toki entitateetan, kanpoko datuak babesteko ordezkariak hautatzen baitituzte zerbitzu-kontratuen bidez.

Toki administrazioek izendatutako datuak babesteko ordezkari kopurua aztertzen badugu populazioaren arabera, ikusten da 50.000 biztanle baino gehiagoko udal



guztiek (Bilbok, Gasteizek, Donostiak, Barakaldok, Getxok eta Irunek) erabaki dutela barneko datuak babesteko ordezkaria izendatzea, eta 20.000 biztanlera heltzen ez direnek, ordea, kanpoko datuak babesteko ordezkariaren zerbitzuak kontratatzea erabaki dutela.

POPULAZIOA	DPD-DBO	Barnekoa	Kanpoko	Int. %
< 500	31	16	15	% 51,6
500 - 999	17	3	14	% 17,6
1.000 - 4.999	35	6	29	% 17,1
5.000 - 9.999	10	3	7	% 30,0
10.000 - 19.999	6	2	4	% 33,3
20.000 - 49.999	8	6	2	% 75,0
50.000 - 99.999	2	2	0	% 100,0
> 100.000	4	4	0	% 100,0
Guztira	113	42	71	% 37,2




6. BARNE KUDEAKETA

6.1. EGITURA ETA LANGILERIA

6.1.1. Organigrama eta langileriaren banaketa



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos





Hona hemen langileriaren egoera 2019ko abenduaren 31n, sexua kontuan hartuta:

Kategoriak	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
Zuzendaria		1	1
Goi-mailako teknikariak	7	4	11
Administrariak	2	2	4
Guztira	9	7	16

6.1.2. Egitura organikoa eta Lanpostu Zerrenda (LP)

- **Lanpostu zerrenda**

Lanpostuen zerrendak administrazioko barne-egiturak antolatzeko baliabideak dira. Beraz, indarrean dauden prozeduren arabera izapidetu ondoren, aldeko txostena jaso duten aldaketak lanpostuen zerrendetan sartu behar dira aldian-aldian, uztailaren 6ko 6/1989 Legearen, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoaren 16., 17. eta 18. artikuluetan agindutakoa betetzeko.

Lege-ordenamenduan bat-batean sakonera handiko araudi berrikuntzak eta lege-proiektuak sartu izanak ekarri dituen erronka berri eta handiei aurre egin behar dien administrazio-agintaritza independente baten funtzionamendu efizienterako funtsezko eginkizunei erantzun beharrak, ezinbestekoa egin zuen izapidetzea zenbait lanpostu sortzeko eta aldatzeko prozesuak, indarrean dauden prozedurekin bat.

Alde horretatik, bereziki aipatzekoa da (EB) 2016/679 Erregelamendua, apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituenak, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera aplikatu beharrekoa baita.

Zuzendariaren 2018ko azaroaren 22ko Ebazpenak (2018ko abenduaren 3ko EHAA) onartu zuen karrerako funtzionarioentzat gordetako gaur egungo lanpostu zerrenda. Ebazpenak lehendik zeuden lau lanpostutan egindako aldaketak ditu eta beste hiru lanpostu berri jaso ditu, bai eta bakoitzari buruzko balorazioak ere.

Bestalde, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2017ko ekainaren 7ko Ebazpenak onartu zuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoko behin-behineko langileen gaur egungo lanpostu zerrenda (2017ko ekainaren 22ko EHAA).

6.1.3. Lanpostuak betetzea

- **Zerbitzu-eginkizunak**

Informatikako auditore-ikuskatzailearen lanpostua hutsik zegoenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendariaren 2019ko otsailaren 4ko Ebazpenaren



bidez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko informatikako auditore-ikuskatzailearen lanpostu bat zerbitzu-eginkizunen sistema bidez betetzeko deitu zen.

Eskabideak aurkezteko epea bukatu ostean, eta hautaketa-prozesua bete ostean, lanpostua 2019ko apirilaren 10eko Ebazpenaren bidez bete zen.

6.2. 2019KO AURREKONTUA

Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 13. artikulua honako hau ezartzen du: «Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera».

2019a hasi zenean artean onartu gabe zegoenez ekitaldi horretarako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren Legearen proiektua, zuzenean jarri zen indarrean maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuak onartutako Euskadiko aurrekontu-araubidearen esparruan indarrean dauden lege xedapenen testu bateginaren IX. tituluan jasotako luzapen-araubidea.

Horri begira, beraz, Lansarien arloan 2019ko ekitaldirako presako aurrekontu-neurriei eta luzapenaren beste alderdi batzuei buruzko otsailaren 14ko Legearen bidez zenbait xedapen onartzen dira, honako arau hauen osagarri: bata Euskal Autonomia Erkidegoko 2018ko Aurrekontu Orokorren 2019rako luzapenaren araubidea, eta bestea Euskal Autonomia Erkidegoko 2018. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legea; izan ere, lege horrek 2019ko ekitaldira luzatu zuen bere indarraldia.

6.2.1. 2019ko aurrekontu betearazpena

GASTUEN AURREKONTUA

Sailkapena KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Kredituak guztira	Obligazioak	Egindako ordainketak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera
1	Langileen gastuak	1.447.955,00	1.188.942,62	1.160.810,10	28.132,52	% 82,11
2	Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	479.692,00	381.350,04	303.431,20	77.918,84	% 79,50
4	Transferentzia eta dirulaguntza arruntak	9.000,00	3.500,00		3.500,00	% 38,89
6	Inbertsio errealak	32.000,00	29.192,41	16.927,47	12.264,94	% 91,23
		1.968.647,00	1.602.985,07	1.481.168,77	121.816,30	% 81,43

Gastuaren betearazpena dela-eta, zera aipatu beharrean gaude:

- I. kapituluaren % 82,11 betearazi da, urtean zehar hainbat lanpostu hutsik egon delako.



- II. kapituluaren % 79,50 betearazi da, eta horren arrazoia da, batez ere, administrazio-egitura arruntaren funtzionamendutik eratorritako gastuen betearazpena hobetzeko erabili dela.
- IV. kapituluaren % 38,89 betearazi da. Datuak babesteko sarien VI. edizioaren deialdia eta ebazpena egiteko baliatu da, zuzkidura ekonomikoa batera doala.
- Datuak Babesteko Ordezkarien Erregistrarako bulegoko ekipamenduak berritzeko eta aplikazio informatikoak diseinatzeko inbertsioaren ondorioz, aurreikusita zeuden inbertsioa guztien % 91,23 betearazi da.

SARREREN AURREKONTUA

Sailkapena KAPITULUA	KAPITULUEN IZENA	Behin betiko aurreikuspenak	Eskubide garbiak	Egindako sarrerak	Kobratzeke	Betearazpen egoera
4	Transferentzia arruntak	1.592.705,00	1.592.705,00	1.592.705,00		% 100,00
5	Ondare-sarrerak	1.000,00				
7	Kapital transferentziak	11.918,00	11.918,00	11.918,00		% 100,00
8	Finantza-aktiboak	363.024,00				
	Sarrerren batura guztira.	1.968.647,00	1.604.623,00	1.604.623,00		% 81,50

«Transferentzia-arruntak eta kapital-transferentziak» ataletakoek DBEBk dituen baliabide ekonomiko nagusietan dute jatorria, eta nagusiki Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura urtero ezartzen diren aurrekontu-esleipenekin datoz bat.

Horrenbestez, 2019an jasotako ekarpena 1.604.623,00 eurokoa izan da, 2018an jasotako zenbateko berbera, aurrekontu-luzapenaren ondorioz.

«Ondare sarrerren» betearazpenari dagokionez, aipatu behar da bankuko kontu korranteetako interesak direla eta ez dugula ezer jaso.

«Finantza-aktiboak» atalean agertzen diren kopuruak Datuak Babesteko Euskal Bulegoak dauzkan diruzaintzako gerakin metatuak aplikatuz gastuen aurrekontuaren zati bat finantzatzearen ondorioz sortu dira, kontuan hartuta urteko aurrekontu-ekarpenek ez dituztela osorik finantzatzen aurreikusitako eta aurrekontuan sartutako gastu guztiak.

6.2.2. 2018ko auditoretza

DBEB kontabilitate publikoaren araubidearen menpe dago eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ekonomia, finantza eta kudeaketa arloko kontrolaren menpe; horrek denak ez du esan nahi ekonomia eta finantzaketako eta kontabilitateko jarduerak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko ez dizkionik.



DBEBren kudeaketa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egokiak diren aztertzeko, eta Bulegoari esparru ekonomikoan dagozkion xedapenak eta jarraibideak betetzen direla ziurtatzeko, Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoa ari da kontu-auditoretzak urtean behin egiten Agentziari.

Aurkeztu ziren eta auditatu ziren kontuak 2018ko abenduaren 31n bukatutako urteko ekitaldiari zegozkion eta honako agiri hauek aurkeztu ziren:

- Egoera-balantzea
- Ondare-emaitzaren eta emaitza ekonomikoaren kontua
- Ondare garbiaren aldaketa-egoera
- Eskudiru-fluxuaren egoera
- Aurrekontuaren likidazioaren egoera
- Memoria, eta memorian honako hauek jasota:
 - Ibilgetu ukiezina
 - Ibilgetu materiala
 - Administrazio-kontratazioa
 - Aurrekontuei buruzko informazioa
 - Diruzaintzako kontua
 - Finantza-, ondare- eta aurrekontu-adierazleak
 - Programatutako helburuen betetze-memoria

Hona auditoretzaren azken txostena:

«... 2018ko ekitaldiaren urteko kontuek Datuak Babesteko Euskal Bulegoren alderdi esanguratsu guztietan 2017ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiru-fluxuen emaitzena ere, aplikatu beharreko finantza informazioaren araudi-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideen arabera.

Honi atxikita doan 2018ko helburuen betetze-mailari buruzko memorian daude jasota zuzendariak eman nahi dituen azalpenak, baina urteko kontuetatik aparteko agiria da. Egiaztatu dugu helburuen betetze-mailari buruzko memorian jasota dagoen kontabilitate-informazioa 2018ko ekitaldiko kontuekin bat datorrela.»



6.3. BALIABIDE MATERIALAK

6.3.1. Egoitza

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren egoitza EJI Eri alokairuan hartutako lokaletan dago, Apaizgaitegiaren eraikinaren atzeko aldean. Hona hemen helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3. solairua.

6.3.2. Beste zenbait kontratu txiki

Hainbat kontratu txiki egin da DBEBren funtzionamendua bermatzeko. Garrantzitsuenak honako hauei buruzkoak dira:

- Lokalen alokairua
- Ekipo informatikoen alokairua
- Fotokopiagailuen mantentze-lana
- Bulegoko materiala eta ekipoak erostea
- Egunkariak, aldizkariak eta liburuak erostea
- Posta bidezko komunikazioen zerbitzua
- Aplikazio informatikoen mantentze-lanak eta ustiapena
- Ekitaldiak antolatzea eta ekitaldiotan parte hartzea
- Argitaratu beharreko eskuliburuak eta beste zenbait elementu diseinatzea eta editatzea
- Urteko memoria argitaratzea
- Azterlan juridikoak
- Langileen bizi- eta istripu-aseguruak
- Kanpoko prebentzio-zerbitzua (LAP)

6.3.3. Egitura teknologikoa eta aplikazioen hobekuntza

DBEBk eta EJIEk izenpetutako lankidetzarako esparru hitzarmenaren baitan (2019ko Addendaren bidez garatuta) hainbat zerbitzu eta dotazio informatiko eta komunikazio-zerbitzu burutu dira, eta egitura informatikoa hobetu da, bai hardwarearen aldetik, bai softwarearen aldetik.

6.4. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO POLITIKA

Laneko Arriskuen Prebentzioko Legeak hainbat betebeharrak eta obligazioak ezartzen ditu, eta horien artean prebentzio-plan bat ezartzea dago. Prebentzio-planak erakundeek lan jarduerak guzti-guztia hartu behar du bere baitan. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du hori oinarritzeko eginbeharra dela.



Datuak Babesteko Euskal Bulegoak uste du laneko segurtasuna, pertsonen osasuna eta lan-ingurunearen zainketa eta hobekuntza funtsezko jarduerak direla erakundea kudeatzeko.

Prebentzio-jarduera sendotzearen eta hobetzearen aldetik, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ezarrita daukan Laneko Arriskuen Prebentzioko politikari eusten dio, eta horretarako, prebentzioko ekintzak eta ekintza zuzentzaileak planifikatzen eta burutzen ditu urtero.

Jarduera-planaren barruan, 2019an honako jarduketa hauek egin dira:

- Segurtasunaren, Higienaren eta Ergonomia/Psikosoziologiaren esparruko Jardueren urteko plana
 - Lanpostuko lan-arriskuen ebaluazio etengabea
 - Laneko arriskuei buruzko informazioa langileentzat.
- Osasunaren Zainketaren arloko Jarduera Planaren urteko egitaraua
 - Medikuzko azterketak

6.5. KUDEAKETA JASANGARRIA ETA INGURUMEN-INPAKTUA

6.5.1. Kudeaketa jasangarria

Orokorrean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren jarduerak ez dute inpaktu txarrik ingurumenean eta ez da gastu edo inbertsio handirik egin behar balizko inpaktuak gutxitzeko.

Hala ere, DBEBk barneratuta duen konpromiso bat da ingurumena artatzeari buruzko balioak errespetatzen duen kudeaketa modu bat lortzea, hau da, baliabide naturalen zentzuzko erabilera-ereduetan oinarritutako garapen jasangarria lortzeko balio duena; horretarako, funtsezkotzat jotzen da langileen lankidetzak.

Ingurumen-inpaktua modu aktiboan kudeatzea lortzeko lehentasunetako bat da materialen eta ekipoen bizi zikloaren kudeaketa eta erabilera optimizatzea.

Teknologia berriak erabiltzen hastea benetako bultzada izan da papera arrazoiz kontsumitzeko; dokumentuak formatu digitalean gordetzen ditugu, eta hori bitartekorik onenetako bat izan da paper premia gutxitzeko eta, beraz, kostuak eta lekua aurrezteko.

6.5.2. Gaikako birziklatzea

Hondakinak etengabe birziklatzen jarraitu dugu, administrazio-guneetan sortzen diren hondakinak gaika jasotzeko tresna egokien bidez:

- Papera jasotzeko ontziak.
- Enbalajeak eta plastikoak jasotzeko ontziak, toki zentralizatu batean.
- Pilak jasotzeko ontziak.
- Tonerra birziklatzea.



AHOLKULARITZA- ETA IKUSKARITZA-UNITATEARI BURUZKO DATUAK

AHOLKULARITZA-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

Kontsultak

2019. urtea		Kopurua
Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra	Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila	1
	Osasun Saila	1
Foru Administrazioa eta Toki Administrazioa	Arabako Foru Aldundia	2
	Navaridasko Udala	1
	Portugaleteko Udala	1
DBEBren jarduketa- eremuko beste entitate eta erakunde batzuk	Osakidetza	1
Pertsona fisikoak		2
Beste erakunde batzuk	Elkargo ofizialak	2
	Sindikatuak	3
	Unibertsitate pribatuak	1
JASOTAKO KONTSULTA KOPURUA GUZTIRA		15

Irizpenak

2019. urtea	Kopurua
EGINDAKO IRIZPENAK GUZTIRA	15

Legezkotasun-txostenak

2019. urtea	Kopurua
Lege-aurreproiektuak / Dekretu-proiektuak / Aginduak	7
EGINDAKO TXOSTENAK GUZTIRA	6



KONTROL-EGINKIZUNARI BURUZKO DATUAK

Eskubideak babesteko erreklamazioak

2019. urtea	Kopurua
Jasotako babes-eskeak	57
Ebatzitako babes-eskeak	51

Salaketak

2019. urtea	Kopurua
Aurkeztutako salaketak	72
Ebatzitako salaketak	72

Arau-hauste prozedurak

2019. urtea	Kopurua
Hasitako arau-hauste prozedurak	33
Ebatzitako arau-hauste prozedurak	27



AURREKONTU-BETEARAZPENARI BURUZKO DATUAK

2019KO AURREKONTU LIKIDAZIOA

Gastuen aurrekontua

APLIKAZIOEN IZENA	Kredituak guztira	Obligazio onartuak	Ordainketa likidoak	Ordaintzeke	Betearazpen egoera	OBLIGAZIO AITORTUAK 2018
GOI-KARGUDUNEN ORDAINSARIAK	77.784,00	71.287,04	71.287,04		% 91,65	71.980,49
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK	65.004,06	65.004,06	65.004,06		% 100,00	63.417,42
FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK	1.012.496,00	816.121,48	816.121,48		% 80,60	765.099,49
ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK	257.440,42	210.663,29	192.711,97	17.951,32	% 81,83	187.133,32
PENTSIEN SISTEMA OSAGARRIETARAKO EKARPENAK	14.302,52	14.302,52	8.210,32	6.092,20	% 100,00	9.005,07
PRESTAKUNTZA	8.728,00	1.164,00	1.164,00		% 13,34	1.377,50
GIZARTEKINTZA	4.700,00	4.089,00		4.089,00	% 87,00	4.700,00
ASEGURUAK	7.500,00	6.311,23	6.311,23		% 84,15	6.911,89
ERAIKINAK	1.000,00				% 0,00	
TRESNERIA		1,5		1,5		22,9
ALTZARIAK	6.041,00	9.352,70	6.362,53	2.990,17	% 154,82	9.789,09
INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK		49,1		49,1		
PROFESIONAL INDEPENDENTEEN ZERBITZUAK	33.033,00	41.559,87		41.559,87	% 125,81	22.892,80
ABOKATUAK, PROKURADOREAK ETA KOSTU JUDIZIALAK						1.209,60
ERAKUNDE KOMUNIKAZIOA	20.894,00				% 0,00	
PROTOKOLO ARRETA	6.000,00	1.297,62	1.297,62		% 21,63	
BULEGOKO MATERIALA	8.000,00	4.936,48	4.054,24	882,24	% 61,71	1.599,08
PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK	7.802,00	14.170,27	13.942,95	227,32	% 181,62	11.851,92
LOKOMOZIOA ETA EGONALDI-GASTUAK	20.922,00	16.084,46	15.998,28	86,18	% 76,88	20.837,30
POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK	12.000,00	2.494,65	2.335,95	158,7	% 20,79	7.064,17
MEZULARITZA	290	50,6	14,3	36,3	% 17,45	964,75
APLIKAZIO INFORMATIKOEN MANTENTZE LANA ETA USTIAPEA	8.100,00	12.081,05	10.524,13	1.556,92	% 149,15	17.136,93
KANPOKO BESTE ZERBITZU BATZUK - EAEKO ERAKUNDEAK	299.325,40				% 0,00	
IVAP/HAEE. Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak						1.006,42
EJIE. Lokalen alokairua Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak		174.165,00	159.557,52	14.607,48		170.683,68
EJIE. Ekipo informatikoen alokairua Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak		9.534,89	7.314,15	2.220,74		9.060,76
EJIE. Aplik. informatikoen mantentze-lana eta ustiapena Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak		80.880,44	67.390,39	13.490,05		89.717,80
ARGITALPENAK ARGITARATZEA ETA BANATZEA	5.388,00	1.820,10	1.820,10		% 33,78	5.787,15
BILERAK, KONFERENTZIAK ETA IKASTAROAK	20.235,00	8.591,21	8.591,21		% 42,46	7.577,21
BESTE ZERBITZU BATZUK	9.364,00	4.280,10	4.227,83	52,27	% 45,71	7.675,12
IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUK	9.000,00	3.500,00		3.500,00	% 38,89	3.500,00
Eragiketa arruntak guztira:	1.915.349,40	1.573.792,66	1.464.241,30	109.551,36	% 82,17	1.498.001,86
ALTZARIAK	6.000,00	4.477,00	4.477,00		% 74,62	
APLIKAZIO INFORMATIKOAK	47.297,60	24.715,41	12.450,47	12.264,94	% 52,26	11.830,34
Kapital eragiketak guztira:	53.297,60	29.192,41	16.927,47	12.264,94	% 54,77	11.830,34
Guztira:	1.968.647,00	1.602.985,07	1.481.168,77	121.816,30	% 81,43	1.509.832,20



Diru-sarrereren aurrekontua

DESKRIBAPENA	BEHIN BETIKO AURREIKUSPENAK	AITORTUTAKO ESKUBIDEAK	DIRU-BILKETA GARBIA	KOBRATU GABEKO ESKUBIDEAK ABENDUAREN 31N	Betearazpenaren %	AITORTUTAKO ESKUBIDEAK 2018
BESTELAKO APARTEKO DIRU-SARRERAK						2.336,00
ONDARE-SARRERAK	1.000,00					
EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORRETIK	1.592.705,00	1.592.705,00	1.592.705,00		% 100,00	1.592.705,00
Eragiketa arruntak guztira	1.593.705,00	1.592.705,00	1.592.705,00		% 100,00	1.595.041,00
EAE-ko ADMINISTRAZIO OROKORRETIK	11.918,00	11.918,00	11.918,00		% 100,00	11.918,00
DIRUZAINZAKO GERAKINAK	363.024,00					
Kapital eragiketak guztira	374.942,00	11.918,00	11.918,00		% 3,00	11.918,00
Guztira:	1.968.647,00	1.604.623,00	1.604.623,00		% 82,00	1.606.959,00

ITXITAKO AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

Ordaindu beharreko obligazioak aurreko ekitaldietakoak

Deskribapena	Ordaindu gabeko obligazioak urtarrilaren 1ean	Egindako ordainketak	Ordaintzeke daude obligazioak
ENPLEGATZAILEAREN KONTURAKO GIZARTE KOTIZAZIOAK	15.522,53	15.522,53	-
PENTSIOEN SISTEMA OSAGARRIETARAKO EKARPENAK	1.210,28	1.210,28	-
ALTZARIAK	2.430,06	2.430,06	-
PRENTSA, ALDIZKARIAK, LIBURUAK ETA BESTE ARGITALPEN BATZUK	134,30	134,30	-
LOKOMOZIOA ETA EGONALDI-GASTUAK	959,89	959,89	-
POSTA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAK	82,20	82,20	-
EJIE. Ekipo informatikoen alokairua Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak	770,80	770,80	-
EJIE. Aplik. informatikoen mantentze-lana eta ustiapena Kanpoko beste zerbitzu batzuk - EAEko erakundeak	14.993,58	14.993,58	-
IRABAZI ASMORIK GABEKO BESTE ERAKUNDE BATZUEI	3.500,00	3.500,00	-
Batura (Jatorrizko ekitaldia: 2018)	39.603,64	39.603,64	-



2019KO ONDAREAREN EMAITZA EKONOMIKOAREN KONTUA

	Ekitaldia: 2019	Ekitaldia: 2018
2. Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	€ 1.604.623,00	€ 1.604.623,00
a) Ekitaldikoak	€ 1.604.623,00	€ 1.604.623,00
a.2) Transferentziak	€ 1.604.623,00	€ 1.604.623,00
3. Salmentak eta zerbitzugintzak		€ 2.336,00
b) Zerbitzugintza		€ 2.336,00
A) KUDEAKETA ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA (1+2+3+4+5+6+7)	€ 1.604.623,00	€ 1.606.959,00
8. Langileen gastuak	-€ 1.188.942,62	-€ 1.109.625,18
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak	-€ 952.412,58	-€ 900.497,40
b) Gizarte kargak	-€ 236.530,04	-€ 209.127,78
9. Emandako transferentziak eta dirulaguntzak	- 3.500,00	-€ 3.500,00
11. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	-€ 381.350,04	-€ 384.876,68
a) Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	-€ 381.350,04	-€ 384.876,68
12. Ibilgetuaren amortizazioa	-€ 13.601,27	-€ 12.122,47
B) KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA (8+9+10+11+12)	-€ 1.587.393,93	-€ 1.510.124,33
I. Kudeaketa arruntaren emaitza (aurrezkia edo desaurrezkia) (A+B)	€ 17.229,07	€ 96.834,67
13. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta aktibo salgarrien balio-narriadura eta besterentzeagatiko emaitzak	€ 122,22	
b) Bajak eta besterentzeak	€ 122,22	
II. Eragiketa ez-finantzarioen emaitza (I+13+14)	€ 17.351,29	€ 96.834,67
III. Finantza-eragiketen emaitza (15+16+17+18+19+20+21)		
IV. Ekitaldiko emaitza (aurrezkia eta desaurrezkia) garbia (II + III)	€ 17.351,29	€ 96.834,67



2019KO IBILGETUA

	Ekitaldi bukaeran pilatutako balioak			Ekitaldi hasieran pilatutako balioak			Ekitaldiko aldaketak		Ekitaldiko amortizazioak		Baja garbiak
	Gordina	Amortiz.	Garbia	Gordina	Amortiz.	Garbia	Berria	Bajak	Urtea	Bajak	
Aplikazio informatikoak	810.131,75	766.234,56	43.897,19	785.416,34	757.383,06	28.033,28	24.715,41		8.851,51		
Bulegoko ekipoak	24.165,01	13.824,73	10.340,28	23.910,91	15.642,82	8.268,09	5.082,00	-4.827,90	2.527,03	-4.345,12	-482,78
Ekipo informatikoak	3.643,86	3.643,86		3.643,86	3.643,86						
Instalazio teknikoak	11.633,90	11.633,90		11.633,90	11.633,90						
Altzariak	160.040,04	155.849,66	4.183,94	160.040,04	153.876,39	6.157,20			1.973,28		
Makineria eta tresneria	387,80	387,80		387,80	387,80						
Beste inbertsio batzuk	5.005,80	5.005,80		5.005,80	5.005,80						
Bestelako ekipoak	2.418,20	1.507,90	910,30	2.418,20	1.258,45	1.159,75			249,45		
Guztira	1.017.426,36	958.088,21	59.331,71	992.456,85	948.832,08	43.618,32	29.797,41	-4.827,90	13.601,27	-4.345,12	-482,78



2019KO AURREKONTU PLANTILLA

	2019ko abe.		2018ko abe.	
Plantilla, langileen moten eta mailaren arabera	Dotazio kop.	Benetakoa	Dotazio kop.	Benetakoa
GOI-KARGUDUNAK ZUZENDARIA	1	1	1	1
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK AHOLKULARIA	1	1	1	1
FUNTZIONARIOAK				
GOI MAILAKO TEKNIKARIA I-A / 28 MAILA	3	3	3	3
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-A / 27 MAILA	1	1	1	1
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-B / 27 MAILA	7	4	7	4
GOI MAILAKO TEKNIKARIA II-C / 27 MAILA	1	1	1	
GOI MAILAKO TEKNIKARIA III-B / 25 MAILA	2	1	2	1
GOI MAILAKO TEKNIKARIA III-C / 25 MAILA	1		1	1
ADMINISTRARIA IV-A / 22 MAILA	1	1	1	1
ADMINISTRARIA V-A / 20 MAILA				
ADMINISTRARIA V-C / 20 MAILA	2	2	2	2
GOI-KARGUDUNAREN IDAZKARIA VI-A / 18 MAILA	1	1	1	1
GUZTIRA	21	16	21	16



